

*Kaixo,
elkadura
burujabetza!*

**LANBIDE HEZIKETAKO HEZKUNTZA
KRITIKO ETA ERALDATZAILE BATEN
ALDEKO IRAKASLEENTZAKO DOSIERRA**



ALIMENTACIÓN

ELIKADURA-JASANGARRITASUNAREN ALDEKO HEZKUNTZA-SAREA




Kaixo, elikadura burujabetza!

LANBIDE HEZIKETAKO HEZKUNTZA KRITIKO ETA ERALDATZAILE BATEN ALDEKO IRAKASLEENTZAKO DOSIERRA

EGILEAK:



Florida Blanca Kalea 66-72 5. lokala
08015 Barcelona
Tel. • 93 423 70 31 • Fax 93 423 18 95
educacion.madrid@justiciaalimentaria.org
<https://justiciaalimentaria.org>
<https://redalimentacion.org/>



Zubiria Etxea. UPV/EHU
Lehendakari Agirre etorbidea, 81 • 48015 Bilbo
Tel.: 94 601 70 91 • Fax: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

Biblioteca del Campus de Álava. UPV/EHU
Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz
Tel. • Fax: 945 01 42 87 • gema_celorio@ehu.eus
www.hegoa.ehu.eus

LAGUNTZAILEAK:

Gema Celorio Díaz
Patricia Gómez Ruiz
Estefanía Torreblanca Fernández
Jaume Canals Bestard
María Bermúdez Rus
Lucía López Marco
Anna Muñoz Gil
Alicia Sevilla Atienza

DISEINATZAILEA: Alicia Sevilla Atienza

MAKETATZAILEA: Lucía Sanz Martínez y David Roldán Vicario

ITZULTZAILEA: Iñigo Gallastegui

INPRIMATZAILEA: Imprenta Almira Brea SL

LEGE-GORDAILUA: M 26028-2021

2021 eko Maiatza

ALIMENTACIÓN ELIKADURA JASANGARRITASUNAREN ALDEKO HEZKUNTZA-SAREA

FINANTZATZAILEAK:



Argitalpen honek Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziaren (AECID) eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (GLEA) diru-laguntza izan du. Argitalpen honen edukia Bidezko Elikaduraren eta Hegoaren erantzukizun osoa da eta ez du zertan GLEAren edo AECIDren iritziarekin bat etorri.



Dokumentu honek Creative Commons lizentzia du. Baimenduta dago lan hau kopiatzea, banatzea eta publikoki komunikatzea baldin eta egilea aitortzen bada eta helburu komertzialekin erabiltzen ez bada. Ezin da lan hau aldatu, eraldatu edo lan honetatik beste bat eratorri.

Lizentzia osoa, hemen: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/>

Edukien aurkibidea

| | |
|---|-----------|
| SARRERA | 3 |
| Nortzuk gara?..... | 3 |
| | |
| 1. MODULUA. HEZKUNTZA BERRIKUNTZA ETA PEDAGOGIA ERALDATZAILEAK | 5 |
| SARRERA | 6 |
| ELIKATZEN DUTEN IKUSPEGIAK | 8 |
| Elikadura burujabetza | 8 |
| Genero-ikuspegia | 9 |
| Iraunkortasuna | 9 |
| Pedagogia kritikoak | 11 |
| ELIKADURA TRANTSIZIO BATERAKO HEZKUNTZA BERRIKUNTZA ... | 12 |
| Zer da eta zer ez da hezkuntza berrikuntza | 14 |
| LANDATIK IKASGELARA | 15 |
| ERREFERENTZIAK ETA BALIABIDEAK | 18 |
| | |
| 2. MODULUA. ELIKADURA BURUJABETZA ETA ELIKADURA ESKUBIDEA | 19 |
| ZER DA GURETZAT ELIKADURA BURUJABETZA..... | 20 |
| ELIKADURA ESKUBIDEA ETA ELIKADURA BURUJABETZA | 21 |
| ELIKADURA SISTEMAK | 22 |
| Eredu agroindustriala | 23 |
| Eredu agroekologikoa | 25 |
| ONDORIOAK | 27 |
| ERREFERENTZIAK ETA BALIABIDEAK..... | 28 |
| IKUS-ENTZUNEZKO BALIABIDEAK..... | 28 |
| | |
| 3. MODULUA. ELIKADURA-HEZKUNTZA | 29 |
| SARRERA | 30 |
| NOLAKO ELIKADURA DUGU GAUR EGUN? | 31 |
| Elikadura-trantsizioak | 31 |
| Zer ondorio ditu elikadura txarrak gure osasunean? | 32 |
| Elikagaiak alferrik galtzea | 32 |
| ELIKAGAIEN INDUSTRIAREN EZKUTUKO INTERESAK | 33 |
| Nor da nor eta haien tresnak | 33 |





| | |
|---|----|
| ELIKADURA-HEZKUNTZA, GENEROA ETA PUBLIZITATEA | 34 |
| Berriz ere genero kontu bat | 34 |
| Ez da egia, soilik publizitatea | 35 |
| Natural, artisaue eta etxeakoaren moda | 35 |
| ALTERNATIBAK | 37 |
| ERREFERENTZIAK ETA BALIABIDEAK | 38 |

4. MODULUA. EKONOMIA ERALDATZAILEAK ETA LAN-EREMUA39

| | |
|--|----|
| SARRERA | 40 |
| ZER DA EKONOMIA? | 41 |
| Nondik dator hitza? | 41 |
| Ekonomia-ereduak | 41 |
| Zer nolako balioak sustatzen ditu eredu bakoitzak? | 42 |
| ZER EKARPEN EGITEN DUTE EKONOMIA ERALDATZAILEEK? | 43 |
| EKONOMIA ERALDATZAILEAK..... | 44 |
| EKONOMIA EZ HAIN ERALDATZAILEAK | 45 |
| LAN-MERKATURA SARTZEA | 47 |
| IRAKASKUNTZA-LANA | 48 |
| ZENBAIT ORIENTABIDE..... | 49 |
| ERREFERENTZIAK ETA BALIABIDEAK | 50 |
| IKUS-ENTZUNEZKO BALIABIDEAK | 50 |

5 . MODULUA. HEZKUNTZA BERRIKUNTZAKO PROIEKTUAK EGITEKO ZENBAIT IDEIA51

| | |
|-------------------------------------|----|
| INSPIRATZEN GAITUZTEN ESALDIAK..... | 52 |
| HEZKUNTZA BERRIKUNTZAKO PROIEKTU | |
| BATERAKO EGITURA POSIBLEA | 53 |
| BIBLIOGRAFIA | 55 |
| ESKER ONAK..... | 56 |

NORTZUK GARA?

Bidezko Elikadura

Bidezko Elikadura hainbat lagunek osatutako elkartea da. Gaur egungo nekazaritza- eta elikadura-sistema eraldatu beharra dagoela uste dugu; izan ere, horrek komunitate baserritarrak zapaltzen eta kanporatzen ditu eta ingurumena hondatzen du. Eraldaketa horretarako beharrezkoa da Elikadura Burujabetza lortzea.

Hegoa

Hegoa, Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua, UPV/EHUko institutu mistoa da. Ikerketaren, irakaskuntzaren eta hezkuntzaren bitartez pentsamendu kritikoa eta propositiboa sortu nahi du, eta beste batzuekin batera gizartea eraldatzeko eragin nahi du.

ALIMENTACIÓN

ALIMENTACIÓN gizarte- eta hezkuntza-programa bat da. Hura 2010ean jaio zen, Bidezko Elikaduraren eskutik, eta 2014an Hegoa, Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua, ere horren partaide bihurtu zen.

Ekimenak jarduera-ardatz gisa hartzen du eskola honako hauei buruz hausnartzeko: elikadura eta horrek ingurumenean duen eragina, osasuna, eta gizabanakoen eta komunitatearen bizi-baldintzak. ALIMENTACIÓN programatik eredu alternatibo bat sustatzen dugu. Eredu hori genero-ikuspegidun Elikadura Burujabetzaren printzipioetan oinarritzen da, landa-eremu bizi baten alde lan egiten du eta eskola dinamizazio-ardatz gisa hartzen du komunitate osoa inplikatzeko.



Bidezko Elikadurak eta Hegoak hezkuntza-dosier hau eskaintzen diegu Lanbide Heziketako irakasleei, hiru helbururekin:

- Nekazaritza- eta elikadura-sistema industrial eta globalizatua eta haren eraginak hobeto ezagutzea, baita gure inguruan aurkitzen ditugun alternatibak ere. Alternatiba horiek Lantokiko Prestakuntzako (LP) aldiekin lotuta egon zitezkeen.
- Curriculumaren eta zeharkako balio hauen arteko elkarguneak identifikatzea: iraunkortasuna, genero-berdintasuna, gizarte-justizia, elikadura burujabetza edo elikadura eskubidea.
- Ikasketa kritikoa eta esanguratsua sustatuko duten proposamen didaktiko berritzaileak sortzeko tresnak ematea, irakaskuntza-ikasketa prozesuaren zeharkako ardatz gisa elikadura-sistema hartzen dutenak.

1

HEZKUNTZA BERRIKUNTZA ETA PEDAGOGIA ERALDATZAILEAK

Gema Celorio Díaz
Patricia Gómez Ruiz



Sarrera

Dosier honekin hasteko **hezkuntza berrikuntzaren (HB) eta pedagogia eraldatzaileen gaia** dugu; elkarri oso lotuta dauden bi estrategia baitira eta hezkuntza-proposamen honen oinarri den **ALIMENTACIÓN** programari zentzua ematen dion erreferentzia-esparrua osatzen baitute.

Hezkuntza kritikoa eta eraldatzailea da **Lanbide Heziketako** ikastetxeetako irakasleak laguntzeko aukeratu dugun ikuspegia. Bere aldetik, **genero ikuspegidun elikadura burujabetza** erreferente etiko-politikoa da eta, horren bitartez, elikadura sistemaren ezagutza lantzen dugu. Hala, gizarte- eta ingurumen-justizian oinarritutako eta bizitzaren iraunkortasunarekin konprometitutako beste eredu batzuetara igarotzeko apustuan kokatzen da hura.

Hezkuntza berrikuntza eta pedagogia eraldatzaileak ezinbestekoak dira ikuspegi horiek Lanbide Heziketako ikastetxeetan finkatzeko eta irakasleek eta ikasleek beren burua subjektu kritiko gisa indar dezaten, **gizartea eraldatzeko prozesuak bultzatzeko gaitasuna izango dutenak**.

Proposatzen dugun ibilbidea gure ikuspegia aurkeztuz hasten da: elikadura burujabetza, generoa, jasangarritasuna eta pedagogia kritikoa. Jarraian, hezkuntza berrikuntzaren ezaugarriak aztertuko ditugu, hain zuzen ere, haren zentzua eta berrikuntza-prozesuak hezkuntza hobetzeko ezinbesteko bilakatzen dituzten ezaugarriak.

Ondoren, **ikasleen testuinguruak eta interes-eremuak** ezagutzearen, ulertzearen eta horiekin konektatzearen garrantzia aztertuko dugu, haiek elikadura-sistema globalizatuei dagozkien erronken parte aktibo senti daitezen.

Horretarako, bada, hezkuntza berrikuntzak elikadura burujabetzarekin eztabaidatzera garamatza; izan ere, elikadura eguneroko premia eta eskubide bat da –pertsonek guztientzat bermatuta ez dagoena beti–. Beraz, ikastetxeetan lehen aipatutako ikuspegietatik lan eginez eta gaia bera landuz, hezkuntzak mundu aldakor baterako ekintza kontziente eta konprometituak eragin ditzake.

Gainera, elikadura burujabetzak eskaintzen digun **diziplinarteko ikasketak** eragiten ditu gizarte bidezkoagoak eta solidarioagoak, ez soilik ingurunearekin, baizik eta mundu osoko zibilizazioekin ere. Batez ere, gaur

egungo testuinguruan, non elikadura, gero eta gehiago, merkatuen eta kanpoko faktoreen menpe dagoen. Interakzio horiek ezagutzea eta ulertzea funtsezkoa izango da. **Aldaketa-une batean** gaude. Horretan, alde batetik, nagusi den kultura oso markatuta –eta zati-tuta– dago elikadura-osasunari, kontsumoari edo hegoalde desberdinekiko kontzientziari dagokienez. Aldi berean, proposamen kohesionatuak garatzeko aukera berriak zabaltzen dituen joera hautematen da eta, horietan, lankidetzak eta sektoreak eta kolektiboak nahasteak mundu bidezkoago eta ekitatiboago bat lortzeko behar diren sinergiak indartuko dituzte.

Hezkuntza berrikuntzak aukera ematen digu lotura horiek arlo **metodologikotik** lantzeko, baita errealitatearekin **kritikoak diren gaur egungo edukiak** txertatuz ere. Elikadura burujabetzak, iraunkortasun-ikuspegi batetik, hainbat borroka hartzen ditu, hala nola genero-berdintasuna, kulturartekotasuna, haurren esplotazioa landa-eremuetan, lanaren duintasuna, etab. Gai horiek ikasleei **zuzenean eta zeharka** helaraztea proposatzen dizuegu.

*Horrela soilik
lortuko dugu hazi
hori ereitea; eta ziur
solaskide ditugun
ikasle horien ibilbide
profesionalean hazi
hori erneko dela
noizbait.*



Elikatzen Duten Ikuspegiak

ELIKADURA BURUJABETZA

Elikadura burujabetza, alternatiba estrategikoa da nagusi den ereduaren aurrean. Azken horrek, bada, espekulatzeko salerosgaitzat hartzen du elikadura, ahalik eta irabazi handienak lortzeko osasunaren, giza-bizitzaren eta planetaren iraunkortasunaren aurka bada ere.

La **Vía Campesinaren** proposamenari jarraituz, elikadura burujabetza da “herriek elikagai osasungarriak, kulturalki egokiak eta metodo iraunkorren bitartez ekoiztuak izateko duten eskubidea, baita beren nekazaritza- eta elikadura-sistemak erabakitzekeo eskubidea ere”.

Helburu hori lortzeko, **agroekologiaren** alde egiten dugu, hura baita proposamenik egokiena bioaniztasuna gordetzeko, baliabideak zentzuz erabiltzeko, tokiko ekoizpena sustatzeko eta jakintza herritarrak aintzat hartzeko, berreskuratzeko eta erabiltzeko. Elikadura eredu hegemonikoek jakintza horiek baztertu dituzte nahiz eta horiek egokiagoak diren **ingurumen- eta gizarte-iraunkortasuna** sustatzeko.

Gure ustez, garrantzitsua da informazioa izatea, elikaduraren gainean erabaki egokiak hartu ahal izateko eta elikadura egokia, nahikoa, askotarikoa eta osoa eta metodo iraunkor, zuzen eta bidezkoekin produzitua lortzeko bide fisiko eta ekonomikoak izateko.





GENERO-IKUSPEGIA

Denboran zehar feministek egindako borrokei esker, gauza handiak lortu dira berdintasunari dagokionez. Hala ere, **oraindik eskema eta estruktura** patriarkalak ditugu gure bizitzaren eremu guztietan.

Gizarte-ereduak menpeko egoera batean kokatzen ditu emakumeak eta baliabideak lortzeko eta kontrolatzeko aukerak mugatzen dizkie, lanaren banaketa sexuala sakonduz, etxeen euskarria eta familien zaintza beren gain jarriz –askotan aipatutako **rol hirukoitza: produktiboa, erreproduktiboa eta komunitarioa**–, haien sexu-eskubideak urratuz, indarkeria matxista erabiliz...

Emakumeen gaitasunak handitzen, egoera hobetzen eta arlo guztietan –politika, gizartea, ekonomia eta kultura– haien parte hartze aktibo eta protagonista sustatzen duten **politikak urriak** dira eta emakumeek urritasun horren ondorioak pairatzen dituzte.

Nekazaritza, batez ere **nekazaritza familiarra**, emakumeen eskuetan egon izan da historikoki, ez ordea luraren jabetza. Hala, emakumeak arduratu dira elikagaiak ekoizteaz, haziak gordetzeaz, soberakinak tokiko merkatuetan saltzeaz... Baina kasu honetan ere, ez zaio behar bezalako garrantzia eman emakumeen eginkizunari eta batzuetan ezikusia ere egin zaio.

Horregatik guztiagatik, genero-ikuspegia txertatu bitartez, emakumeek **elikaduran eta bizitzaren erreprodukzioarako eta iraunkortasunerako zaintza-lanetan izan duten eginkizuna aintzat hartu** nahi dugu. Aldi berean, hezkuntza berrikuntzako proiektuak sustatuz, ardura horretan guztiok parte har dezagun behar diren eraldaketak sustatu nahi ditugu –hezkuntzan, gizartean eta kulturatan–.

IRAUNKORTASUNA

Baliabide naturalen estraktibismoa eta hiperesplotazioa ekoizpen-eredu kapitalistaren oinarrian daude eta **krisi ekologiko** larria ekarri digute. Horien eragina, ez da soilik ingurumenean, naturan edo lurraldeetan sortzen diren ondorio negatiboak. Izan ere, eragin gaiztoak ditu pertsonengan eta komunitateetan ere, bereziki arrisku edo ahultasun egoeran dauden horietan.

Gure garapen-ereduaren ezaugarri den antropozentrismoak ez du kontuan hartzen **iza-ki ekodependenteak** garela eta planeta mugatu batean bizi garela. Ikuspegi ekologikoari esker, harreman berri bat ezar daiteke giza-ingurunearen eta ingurune fisikoaren artean, lehenengoa bigarrenaren gainean kokatzen ez duena. Era berean, komunitateen eta haien lurraldeen arteko lotura gordetzen zuen **oreka nola leheneratu** pentsatzeko aukera ere ematen digu.

Iraunkortasunaren ikuspegiak irakatsi digu, batez ere, beharrezkoa dela **bizitzaren iraunkortasuna eta zaintzaren etika erdigunean jartzea**. Zaintzaren etikak kolokan jartzen ditu kapitalismoaren oinarriak, honek bizitza merkantilizatzen baitu. Etika horrek, bada, gizakien bizitza lotzen duen interdependentzia aintzat hartzen du eta pertsona guztiok komunitatean bizi garen izaki sozial bezala dugun arduraz azpimarratzen du, besteak beste, oinarrizko premia materialak –elikadura, bizilekua, arropa...– eta harreman-premiak –adiskidetasuna, maitasuna, segurtasuna...– asebetetzen dituen giroa lortzeko. **Elkarri zaintzeko ardurakidetzari** eta gizarte- eta ingurumen-justiziako beste eredu batzuetara –bizitzaren iraunkortasuna bermatuko duten horietara– igarotzeko beharrari buruz hitz egiten digu.



PEDAGOGIA KRITIKOAK

Pedagogia kritikoen barruan hainbat ikuspegi aurkitzen ditugu, hezkuntza-harremanean parte hartzen duten zentzu, prozesu eta subjektuei buruzko ikuspegi sozial eta politiko bat proposatzen dutenak. Hala, **aurrean ditugun arazoak kritikoki aztertze**ko gaitasunak garatzen dituzte, **tokiko eta mundu** eremuaren arteko loturak ezartzeko eta, banaka eta taldean, gizarte justiziarekin, berdintasunarekin eta iraunkortasunarekin konprometitutako ekintzak abian jartzeko.

Hezkuntza berrikuntzako prozesuek helburu horiek lortzen laguntzen digute, honako hauen bitartez:

- i) Munduari begiratzeko dugun modua **konplexuagotzea**, ikuspegi feministak eta ekosozialak barneratuz;
- ii) Gizartearentzat garrantzitsua den ezagutza sortzeko beharra azpimarratzea, edukiak **diziplinarteko ikuspegietatik** antolatuz;
- iii) Ikasleak subjektu kritiko bihurtzea, beren ekintza sozial eta herritarretik **gizarte-aldaketa sustatzeko** gai izango direnak.

Pedagogia kritikoak praktika **pedagogiko kokatuak dira**. Hau da, lurraldeetan errotzen dira, hezkuntza-komunitatearen premia eta interesei erantzuten diete, testuingurua kontuan hartzen dute eta horrek eskaintzen dituen aukerak baliatzen dituzte inguruko gizarte-eragileak hezkuntza-ekintzan inplikatzeko.

Hezkuntza berrikuntzak lotura horiek egiten laguntzen digu. Horretarako, **ikasketa integrala** –etikoa eta politikoa, emozioetatik eta gorputzetatik...– errazten duten metodologiak txertatzen ditu. Horien helburuak dira, besteak beste, gazteen inplikazio aktiboa –haien esperientzia eta biografietan oinarrituta–, ikerketa sustatzea, errealitatea aztertzea eta beste subjektu, kolektibo edo gizarte-mugimenduekin batera alternatibak sortzea.

Dena den, Henry Giroux-ek gogorarazten digun bezala, *“pedagogia kritikoa ez da teknikak eta metodologiak komunikatzea soilik. Aitzitik, gelan eta beste hezkuntza-eremu batzuetan gertatzen dena ulertzea du helburu. Horretarako, bada, galderak egiten ditu: zein da ikasketaren eta gizarte-aldaketaren arteko lotura, zein ezagutzak du baliorik handiena edo zer esan nahi du zerbait ezagutzeak. Hala, hausnarketa kritikoan jartzen du indarra, ikasketaren eta eguneroko bizitzaren artean zubi bat eraikitzen du, boterearen eta ikasketaren arteko lotura ulertzen du eta eskubide demokratikoak eta identitatea zabaltzen ditu.*

Beraz, haren helburu nagusia ez da bakarrik hezkuntza berri bat sortzea, baizik eta gizarte berri bat lortzea. Ulertu behar dugu pedagogiaren bitartez, ezagutza aldatzeaz gain, kontzientzian eta pertzepzioan eragiten ari garela eta subjektibitate berriak sortzeko ahalmena dugula, beren burua merkatuko prezioaren bitartez definitzen ez dutenak”.

Elikadura Trantsizio Baterako Hezkuntza Berrikuntza

Hezkuntza berrikuntzaz ari garenean, eskolaren eginkizunari eta bere dimentsio politiko eta sozialari buruz hausnartu behar dugu derrigorrez. Paulo Freirek 1985eko elkarrizketa batean gogorarazten zigun bezala, "hezkuntza askatzaileak ez du, berez, gizartea aldatzen [...] baina gizartea ez da aldatuko hezkuntza askatzailearik gabe". Ideia hori azpimarratu nahi dugu, hura funtsezkoa baita hezkuntza berrikuntza zer den zehaztu behar badugu eta hura aldaketa metodologikoetatik edo teknika berriak eta/edo teknologia digitalak sartzetik bereizi nahi badugu.

Víctor Manuel Rodríguezek (2016) honela azaltzen du:

"Eskola ez da eremu bakarra izango, agian, emantzipazioaren alde eta naturaren, pertsonen eta haien arteko harremanen harrapari den eredu sozial, ekonomiko eta politiko bidegabea eraldatzeko lan egiteko; baina, ziurrenik, garrantzitsuenetako bat da. Nire ustez, curriculumari buruzko hausnarketa hori eta haren erabateko eraldaketa –askoren ustez beharrezkoa dena– metodologia-aldaketa bezain berritzailea edo are berritzaileagoa da"

Hezkuntza berrikuntzak sustatu nahi ditugun prozesuei forma ematen lagunduko diguten **galderak egitera** garamatza.

ZERTARAKO NAHI DUGU BERRIKUNTZA?

Gure ustez, **hezkuntzaren kalitatea hobetu** bitartez, ikasleak subjektu kritiko gisa gaitzen ditugu eta gure ikastetxeak eraldatzen ditugu, hauek gizarte-aldaketarekin konprometitutako erakundeak izatea lortuz, hau da, eskola inklusiboak, demokratikoak eta herritarrak.

NOLA EGINGO DUGU?

Hausnarketa-, ikerketa- eta diagnostiko-prozesuak bultzatuz. Horiek konpondu nahi ditugun arazoak identifikatzen lagundu behar digute, baina, batik bat, honako hauek lotzen dituzten harremanen sare konplexua ulertzen lagundu behar digute: irakaskuntza-ikasketa prozesuak eta curricula; eskola-kultura eta ezartzen ditugun harreman pedagogikoak; **eragile nagusien protagonismoa** eta aldaketaren aldeko inplikazio kolektiboa.

NORTZUK SUSTATUKO DUGU BERRIKUNTZA?

Jakina, hezkuntza berrikuntzako prozesuak sustatzeari dagokionez, **irakasleek** dute ardura nagusia. Hori egia da, baina, lehen, berrikuntzaren dimentsio sozial eta politikoa azpimarratu dugu, irakasleek bakarrik ezin baitute; hezkuntza-komunitatearen partaidetza, konplizitatea eta inplikazioa behar dute. **Hezkuntza-komunitatea** zentzu zabalean ulertzen dugu, hau da, irakasleak, ikasleak, familiak eta gizarte eragileak.

Berrikuntza zertarako?

Guztion ikasketa guztion artean hobetzeko, bazterketarik gabe.

Herritarrak hezteko eta horrela gizartearen eraldatzeko.

Hezkuntza eraldatzeko.

Bidezkoagoa den gizartearen lortzeko, desparekotasuna murriztuz eta inklusiboago izanez.

Berrikuntza nondik?

Autoeraikuntzatik, autokonponbideetatik eta autoproposamenetatik (berrikuntza ikasketa-prozesuan eta berrikuntza heldua).

Erabakiak hartzetik eta autonomia sortzetik.

Ikasketa-“profesionalak” komunitatea berregitetik.

Noiz da hezkuntza berrikuntza?

Ikastetxearen hausnarketa eta testuinguruaren tokiko ulermena daudenean.

Konpromiso profesionala eta ekintza kolektiboa –hezkuntza komunitatea– daudenean.

Guztion ikasketa hobetzeko erantzun kontzientea dagoenean, ekitate eta kalitate oreka bat lortzeko.

Nortzuk eta norekin egiten dugu berrikuntza?

Ikastetxeak irakasleen konpromiso kolektiboarekin.

Irakasleen konpromiso sozialak, haiek aldaketarako eragileak diren aldetik.

Talde lanak, ikasketara bideratutako lidergo argi batekin.

Iturria: Richar Parra Robledo (2016:4).

ER DA ETA ZER EZ DA HEZKUNTZA BERRIKUNTZA

Hurrengo taulan hezkuntza berrikuntza zer **den eta zer ez den** identifikatzen lagunduko diguten zenbait ideia nagusi laburbiltzen ditugu.

| <p>Zer EZ DA hezkuntza berrikuntza</p> | <p>Zer DA hezkuntza berrikuntza</p> |
|--|--|
| <p>Hezkuntzaren kontzepzio teknikoa/ instrumentala</p> | <p>Hezkuntzaren kontzepzio politikoa, errealitatea eraldatzeko ezinbesteko estrategia gisa.</p> |
| <p>Arreta emaitzetan jartzea. Aldaketa partzialak edo puntualak egitea, horiek hezkuntzan eragiteko gaitasun gutxi dutelarik.</p> | <p>Arreta prozesuan jartzea. Aldaketa sakonak eta estrukturalak (curriculumak, eskola-kultura, irakaskuntza-ikasketa estrategiak...) lortu nahi dituzten ekimenak, hezkuntza-ekintza hobetzeko eta ikasleak kritikoa izan daitezten lortzeko.</p> |
| <p>“Errezeta” unibertsalak, edozein egoera eta baldintzetan aplikatzeko aurkezten direnak.</p> | <p>Testuingurua kontuan hartzen duen proposamen pedagogikoa. Ekimen kokatuak, ikastetxeetako errealitatean, premietan eta interesetan oinarritzen direnak.</p> |
| <p>Curriculum teknikoa. Irakaskuntza-ikasketa prozesuen partzializazioa.</p> | <p>Problematika esanguratsuen inguruan antolatutako curriculumak. Hezkuntza-komunitateari protagonismoa ematen dioten, partaidetzako diagnostiko eta hausnarketetan oinarritzen diren eta ikastetxea eraldatzeko eta ikasleak eraldaketa-ahalmena duten subjektu kritiko bihurtzeko funtsezko aldaketak sartzen dituzten ekintzak.</p> |
| <p>Digitalizazioa. Teknologia berriak akritikoki txertatzea, horiek berez izaera berritzailea dutelako ustean (kontzepzio teknikoa).</p> | <p>Teknologia berriak ikuspegi kritiko batetik txertatzea, hezkuntza-praktikak hobetzeko estrategia gisa.</p> |
| <p>Prozesu indibidualak, endogamikoak.</p> | <p>Prozesu kolektibo eta kooperatiboak, ikastetxeko eragileez gain, lotura duten beste batzuk ere inplikatzeko dituztenak.</p> |

Landatik Ikasgelara

Sebastià Riutort (2016:47) oinarri hartuta, garrantzitsua da honako hauek bereiztea: alde batetik, merkatu-ekonomiaren mugaldeen balio soziala sortu nahi duen berrikuntza eta, bestetik, **herritarren sormenerako eta esperimentaziorako bide** gisa ulertzen dena, gizartea demokratizatzeko prozesuen aldeko erakunde-aldaketako prozesuak abiatzeko. Bigarrena da guri gustatzen zaiguna. Izan ere, hark paradigma ideal batera eramaten gaitu, **non nagusi den gizarte-ordenaren aurrean alternatibak** sortzeko beharrezkoak diren elementuak biltzen diren. Gizarte-ordena horren atzean, bada, enpresa handiei –kasu honetan, elikadura enpresak– laguntzen dieten politika publikoak daude, gizartearen benetako premiak eta eraldaketarako eragile gisa duten gaitasuna alde batera uzten dituztenak.

Ikastetxeetan, hezkuntza berrikuntzak esan nahi du, labur esanda, eza gutza, ulermena eta lortura, elikadura burujabetzaren inguruko arloak lantzeko oinarri bezala, hainbat elementu txertatuz (ekonomia, biologia, estatistika, genero, soziologia, geopolitika) elikadura-politika eta -dinamikak ulertu eta horietan parte hartu ahal izateko gizarte justiziarri eta elkartasunari dagokionez. Horregatik HBa ez da metodologia batetik bestera aldatzea edo pedagogia teknologikoko estrategia berriak txertatzea soilik, hori interesagarria bada ere. Aitzitik, curriculum-edukia diziplinarteko modu batean antola dezakegu baina, berritzailea izatea nahi badugu, beti **zentzu eta eduki ekosoziala** emango diogu. Ikasleak profesional onak izateko eta aurkezten diren erronken aurrean erresilienteak izateko tresnak eskuratu behar dituzte; izan ere, OMEren ustez, hau ez da azken pandemia izango eta gero eta gosetu gehiago izango ditugu.

HBak eduki akademikoez harago ikusteko aukera ematen digu. Horiek funtsezkoak dira prestakuntzaren espezializazio zehatza lortzeko baina beste batzuk ere eman ditzakegu, eraldatzaileagoak eta zeharkakoagoak direnak. Izan ere, azken hauek beharrezkoak dira ikasle eta herritar konprometituak behar dituen mundu aldakor honetan. Elikadura burujabetzak esparru teoriko-praktiko bat eskaintzen digu **elikadura-eredu globalizatu eta industrializatuaren eta horren ondorioen inguruan hausnartzeko**: osasunerako arriskuak (elikadura da arriskurik handiena alkoholaren, drogen eta lan-istripuen aurretik); elikadura-espekulazioa; krisi ekonomikoa, sistemikoa eta zibilizaziokoa.





COVID-19ak **elikadura-sistemaren ahultasuna** erakutsi du. Adibidez, herrialdeen arteko mugak ixtean, herri askok arazoak izan dituzte elikagaiak eskuratzeko eta langileak falta izan dira uztak aurrera eramateko -ondorioz, hainbat lekutan gosetuen kopuruak gora egin du: 2019az geroztik 132 milioi gehiago, UNICEFen datuen arabera). Orain pandemiaren laugarren olatu honetan, badirudi historia errepikatzen ari dela lehen sektorean.

Elikagaien bankuen adibidea ere oso erakusgarria eta mingarria da. Horiek, batez ere, pertsona adinduek kudeatzen dituzte eta konfinamenduen eta hornikuntza eskasaren ondorioz (eta eskaria % 35 hazi dela) oso zailtasun handiak izan dituzte behar duten pertsona horiei **“jaten emateko”**. Gainera, kontuan hartu behar dugu **genero-ikuspegitik**, elikagaien bankuen erabiltzaile gehienak emakumeak direla -jantoki sozialetan, aldiz, gizon gehiago egoten dira- eta, beraz, berriz ere, emakumeak eta haien atzean dauden familiak kalte handiagoa pairatzen ari direla krisi horretan.

Elikadura-eredu globalizatu eta industrializatua oso eredu zatikatua eta menpekoa da eta horren aurrean beharrezkoak dira tokiko alternatibak. Ildo horretan zenbait estrategia ditugu, hala nola [Del campo a la mesa](#) (landatik mahaira) eta [Bioaniztasunari buruzko EBren 2030era arteko estrategia](#), klima aldaketaren aurka borrokatzeko legearen babesa dutenak -hura [erronka gisa dago LOMLOE lege organikoan](#)-. Estrategia horiek hainbat gomendio politiko nabarmentzen dituzte, elikadura tokikotzeko eta, horren bitartez, klima aldaketari aurre egiteko, kimikoen erabilera murrizteko, animalien ongizaterako, prezioak zehazteko, kontratazio publikoan elikagai jasagarriak eta ekologiakoak sustatzeko eta abar.

Gainera, estrategia bi horietan ikuspegi kritikodun ingurumen-hezkuntza sustatzearen garrantzia berriaz aipatzen dituzten atalak daude. Horretarako ikastetxeetan hezkuntza-programak txerta daitezke eta, horrela, **ikastetxeak** injustizia sozialak normalizatzen dituzten elikadura-ereduak **aldatzeko eragileak** izango dira. Zabor-janeko jatetxe batera jotzea, baliabiderik ez daudenean eta ezin denean aukeratu, ez litzateke aukera bat izan behar udalarentzat, Madrilan alarma egoeran gertatu zen bezala. Hain zuzen ere, balore urriko elikadura-eredu baten eta erabaki politiko zalantzagarrien ondorioak dira horiek eta egoera ahulenean dauden herritarrengan eragiten dute.

Sabela bete, bai, baina hausnartuz. Horixe da HBak ekintza horiei egiten dien ekarpena, eta guri dagozkigun beste batzuei ere, -De compras con Hannah Arendt (Hanna Arendt-ekin erosketak egiten) bideoak gogorarazten digun bezala-.

Hezkuntza-programa horiek **elikadura-eredu alternatiboei buruzko hausnarketan aurrera egin** dezakete, elikagaia bere dimentsio guztietan lantzeko, nutrizio-balioez eta ahalmen biologikoaz harago.

Horretarako, beharrezko bihurtzen da **testuinguruei eta errealitatei** buruzko ikasketa (pedagogia kokatuak), **gelan eta gelatik kanpo**, non, zehatza eta gertukoa den horretaz harago, elikadura beste gako batzuetatik lantzeko aukera dagoen. Beharrezkoa, beraz, egoera aztertzeke eta azterketa hori ikasleei eskaintzeko inguruan duten munduarekin modu kontziente eta konprometituan presta daitezten.

HBak, hortaz, gizarte problematikak lantzeko modu hori eskaintzen digu. Hark identifikatzen ditu zeintzuk diren gabeziak, baita **ikastetxe-inguru-neak** ikasketa esanguratsua eskaintzeko dituen aukerak ere; izan ere, ikasleak beren eraldaketaren protagonista dira. Beste gako bat da dimentsio politiko batetik ikasleen bizitza pertsonalarekin konektatzea -hau da, haien ohiturak inpaktuak sortzen dituztela-.

Adibidez: zabor-janeko jatetxe baten bezeroak badira eta bertan lan egiten dutenen lan-baldintzak ikusten badituzte -maiz, langile horiek ikaskideak edo ezagunak izaten dira-, erraza da horri buruz hausnartzea edo horren inguruan jardutea. Eta egiten ez badute ere, gutxienez, **hazia geratuko da** bertan, beste prekaritate/bidegabekeria/delituren batekin lotura ezartzeko zain. Izan ere, gaur egungo elikadura sistemak ondorio horiek sortzeko joera du eta, bada, sistema bera amildegiaren ertzean kokatzen duen makineria izugarriaren menpe dago. Hala, haize apur bat dagoenean jausteko arriskua oso handia da.

Lotura horiek **ibilbide-orri bat proposatzea** erraztuko dute, inplikaturako edo interesaturako alderdi guztiek adostua, baita inguruko eragileekin ere: gizarte-eragileak, eragile landatarrak, uzta batzera datozen emakume migranteak, ikertzaileak, unibertsitateak, Lehen Hezkuntzako ikastetxeak, udalak, auzo-elkarteak, merkataritzaz haragoko balioak dituzten enpresak, etab.

Errealitate horiek ezagutzeak eta haien artean lortura ezartzeak atek zabaltzen dizkie beste ikasketa- eta ezagutza-modu batzuei. Zenbat aldiz izan dugu ezagutzen ez genuen ekimen baten berri eta, harrituta (onerako), ikertzen hasi gara, munduko herritar gisa gure prestakuntza osatzen duten proposamen berri eta interesgarriak ezagutuz.

Amaitzeko, elikadura begirada zabaletatik landu dezakegu baina hurbileko ikuspegia mantenduz, **elikadura burujabetza** gauzatua izan dadin eta hura bizi duten horien zerbitzura egon dadin. bibEzagutzak, Ulermenak



eta Loturak hirukoak ardatz izan daiteke ikastetxeak ikasleen interesa pizteko proposamen erakargarriak eta berritzaileak gara ditzan. Horrela ikasleek beren prozesua abiatuko dute subjektu politiko gisa, zenbait produktu eta ohiturari uko eginez eta munduan jarduteko modu berriak sustatuz; bizitzaren iraunkortasunaren aldeko antolakuntza zibil eta kolektiboko modu berriak, alegia.

Erreferentziak Eta Baliabideak

Domingo Segovia, Jesús (2013). **“Un marco crítico de apoyo para ubicar y redireccionar experiencias innovadoras en Educación: Comprensión y Transformación”**, in Tendencias Pedagógicas 21. zkia., 9-28.

Hemen: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4182689>

Martínez Bonafé, Jaume (2008). **“Pero ¿qué es la innovación educativa?”**, in Cuadernos de pedagogía, 375. zkia., 78-82.

Hemen: <http://www.uv.es/bonafe/InnovaciónCUADERNOS.pdf>

Parra Robledo, Richar (2016). **“La innovación educativa contribuye a la inclusión socioeducativa”**, in DIM: Didáctica, Innovación y Multimedia, 34. zkia., 1-13.

Hemen: <https://www.raco.cat/index.php/DIM/article/view/313808>

Riutort, Sebastià (2016): **Energía para la democracia**. Madril, FUHEM Ecosocial/Catarata.

Rodríguez, Víctor Manuel (2016). **“¿Será que no soy lo bastante innovador?”**, in El diario de la educación. Hemen:

<https://eldiariodelaeducacion.com/2016/12/09/sera-que-no-soy-lo-bastante-innovador/>

Tarabini, Aina (2017). **“Innovación educativa: qué, por qué y cómo”**, in El diario de la educación. Hemen:

<https://eldiariodelaeducacion.com/2017/01/10/innovacion-educativa-que-por-que-y-como/>

2

ELIKADURA BURUJABETZA ETA ELIKADURA ESKUBIDEA

Estefanía Torreblanca Fernández
Jaume Canals Bestard

Zer Da Guretzat Elikadura Burujabetza

Gaur egun, ezin da ukatu nekazaritza- eta elikadura-sistema aldatu beharra dagoela, horrek komunitate baserritarrak zapaltzen eta kanporatzen baititu eta ingurumena hondatzen baitu. Horretarako, bada, jendarte bidezkoa, berdintasunezkoa eta solidarioa eraiki beharra dago, elkartasun arduratsu eta begirunetsuz jokatzuz. Aldaketa horretarako beharrezkoa da landa-garapeneko eredu bidezko bat sustatzea, **Elikadura Burujabetzaren** aldekoa, eta jendartean kontzientzia solidarioa sortzea, gizartea eraldatzeko oinarri gisa.

XX. hamarkadaren erdialdean, industrializazioarekin batera, nekazaritza industria bilakatu zen. Horrek gero eta gehiago inbertitzea eskatzen zuen eta makinariarekiko, intsumo kimikoekiko eta petroliotik eratorritako produktuekiko menpekotasuna gero eta handiagoa egin zen. Aldi berean, tradiziozko haziak baino errentagarriagoak ziren hazi barietateen erabilera hedatu zen. Hala sortu zen gaur egun nagusi den elikadura-eredua, kilometro askoko elikagaiak banatzen dituen eta enpresa multinazional gutxi batzuek kontrolatzen dutena. Enpresa horien helburua, bada, irabazi ekonomikoak maximizatzea da, gizarte eta ingurumen alderdiak alde batera utzita. Testuinguru horretan La Via Campesina sortu zen, munduko nekazariak biltzen dituen erakundea. Horrek elikadura burujabetzaren kontzeptua garatu zuen 1996an.



Elikadura Burujabetza (aurrerantzean EB) herriek beren nekazaritza-, abeltzaintza-, lan-, arrantza- eta elikadura-politikak erabakitze eta horiek ekologikoak eta sozialki, ekonomikoki eta kulturalki egokiak izateko duten eskubidea da. Zentzu horretan, emakumeek funtsezko eginkizuna dute; izan ere, FAOren arabera, munduko elikagaien ehuneko %70 inguru ekoizten dituzte.

Elikadura Eskubidea Eta Elikadura Burujabetza

Hitzez harago eta borroka sozial beharrezkoak alde batera utzita, **Elikadura egokia izateko Eskubidea** Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunean jasota dago: *“gizon, emakume edo haur orok, bakarrik edo beste batzuekin batera, elikadura egokia eta hori lortzeko baliabideak izateko aukera fisikoa eta ekonomikoa izan behar du” (Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea, 1999: 3).*

Gainera, Itunaren arabera, elikadurak honelakoa izan behar du:

- Premia fisiologikoak asetzeko behar beste kantitatea eta kalitatea izan behar du.
- Ez du substantzia kaltegarririk izan behar.
- Kulturalki egokia izan behar du.
- Hori lortzeko aukera bermatuta egon behar da fisikoki eta ekonomikoki.
- Egonkorra eta iraunkorra izan behar du, hori lortzeko aukera murriztu ez dadin gizarte, ekonomia, kultura, ingurumen eta ekologia baldintzak aldatzen badira.

Elikadura eskubidea dugula ulertzen dugunean jabetzen gara gobernuek **betebehar juridikoak dituztela** eta horiek aldarrikatzeko prest gaude. Aldi berean, ardura horren titularrak jo puntuan kokatzen ditugu, kasu honetan, nekazaritza negozioa kontrolatzen duten transnazionalak.



Beste alde batetik, **Garapen Iraunkorreko Helburuetako (GIH)** bigarrenak honako hau aurreikusten du 2030. urterako: “gosearekin amaitzea eta pertsona guztiek urte osoan zehar elikadura osasungarria, nutritiboa eta nahikoa dutela bermatzea”. Hala ere, elikadura-sistema globalizatuak nola jokatzen duen ulertzen dugunean, konturatzen gara elikadura burujabetza eta Elikadura Eskubidea GIH guztiei dagokiela:



Elikadura Sistemak

Elikadura-sistema bat osatzen dute hainbat **elementuk** (ingurunea, biztanleak, baliabideak, prozesuak, erakundeak eta azpiegiturak), **jarduerak** (ekoizpenari, prozesamenduari, banaketari, prestaketari eta kontsumoari lotuak) eta jarduera horiek nutrizioan, osasun-egoeran, hazkunde sozioekonomikoan, berdintasunean eta ingurumenean dituzten **emaitzek**.

FAOren arabera, **elikadura-sistema iraunkorra** da *“pertsona guztien elikadura-segurtasuna eta nutrizioa bermatzen duena, hurrengo belaunaldientzat segurtasun eta nutrizio horien ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-oinarriak arriskuan jartzen ez direla ziurtatuz. Horrek esan nahi du beti dela errentagarria, iraunkortasun ekonomiko bermatuz; gizartearentzat onurak dakartzala, iraunkortasun soziala bermatuz; eta baliabide naturaletan eragin positiboa edo neutroa duela, ingurumen-iraunkortasuna bermatuz”*.


Hala, bereiz ditzakegu, batetik, nekazaritza-industriak sustatutako **elikadura-sistema utsiezi-na** eta, bestetik, sistema iraunkorra, non eredu agroekologikoa nagusitzen eta alternatiba gisa aurkezten den. Jarraian, eredu horien ezaugarriak aztertuko ditugu.

EREDU AGROINDUSTRIALA

Eredu honen ekoizpen- eraldaketa- eta merkaturatze-jarduerak gero eta pertsona gutxiagoren esku daude eta, hortaz, horietatik sortutako aberastasunarekin gauza bera gertatzen da. **Ekoizpen-jarduerak** monolaborantzan, produktu kimikoetan (ongarriak, pestizidak, herbizidak), mekanizazioan eta teknologizazioan oinarritzen dira. **Eraldaketa-jarduerak** elikagaien eraldaketa sakona egiten dute, kontserbagarriak, gatza, azukrea, koipeak eta hainbat gehigarri erabiliz. Azkenik, **merkaturatzea** supermerkatu handietan kontzentratzeko prozesua ematen da.

Kontuan hartu behar dugu elikadura-eredu honek petrolioarekiko menpekotasun handia duela eta egunean milaka tona hondakin sortzen dituela. Bere helburu nagusia irabazi-ekonomikoa den aldetik, bere jarduera guztiak irabaziak maximizatzen eta kostuak nola edo hala murrizten dira (dagokion giza eta ingurumen kostuarekin).

Eredu agroindustrial horren **efektuak** eta ondorioak elikadura-sistemaren elementu guztietan hautematen dira. Hona hemen adibide batzuk:



- Lurrak esku gutxitan kontzentratzea. Azken hamar urteotan, soja laboreek 900.000 nekazari beren lurretatik kanporatu dituzte Paraguain.
- Produktibitate handiko haziekiko eta/edo hazi transgenikoekiko menpekotasuna, horiek ongari eta pestizida kimikoen erabilera masiboari lotuta daudelarik.
- Botika gehiago erabiltzen dituen abeltzaintza industrialia.
- Bioaniztasuna galtzea, labore-barietateak galtzearen, monolaborantza areagotzearen eta deforestazioaren ondorioz. Munduko nekazaritza-barietateen % 75 joan den mendean galdu ziren.
- Ura, lurzorua eta airea kutsatzea.
- Plastikoen erabilera masiboa: astean, batez beste, 5 gramo plastiko jaten dugu, hau da, kreditu-txartel bat bezainbeste.
- Klima-aldaketa larriagotzea, petrolioaren menpeko sistema batez ari baikara. Berotegi-efektuko gasen % 20 nekazaritza intentsiboak isurtzen ditu.
- Ura alferrik galtzea. FAOren datuen arabera, munduko aztarna hidrikoaren % 70 elikadurari dagokio.
- Elikagai osasungaitzak.



Hau da, nekazaritza-negozioko eredu hori **ez da oso demokratikoa**; izan ere, transnazional gutxi batzuek prezioak erabat ezartzen dituzte eta elikagaien banaketaren % 77 enpresa gutxiren esku dago (Carrefour, Mercadona, Día, Lidl, Eroski, Aldi).

GENERO KONTU BAT DA ERE...

Bestalde, eredu horrek **genero-desparekotasuna sustatzen du**; izan ere, emakumeek elikagaien % 60 eta % 80 inguru ekoizten dituzten arren, mundu mailan lurraren % 2 baino ez dute. Emakumeak lan merkatura sartu izanaren eta horretan izan ohi duten egoera prekarioaren ondorioz, familiek gero eta denbora gutxiago ematen dute janaria erosten eta prestatzen eta elikadura osasungarria eta jasangarria prezio onean izateko estrategiak diseinatzen.

Munduko hainbat lekutan, historian zehar, **elikagaien ekoizpenaren zati bat emakumeen lanaren emaitza** izan da, hala nola landareak eta fruituak batzea, haziak gordetzea eta aukeratzea, etab. Lur komunen emankortasuna zaintzeaz arduratu dira, bizitza-sistema kolektiboak eta abandonatuen eta umezurtzen zaintza antolatu dituzte, eta lurra eta beren familien eta komunitateen biziraupena defendatu dute. Emakumeek, maiz, nekazaritzari eta herri medikuntzari buruzko ezagutza berezia dute baina hura gutxietsi izan da merkatua eta, batzuetan, Estatua agertzean. Beraz, nekazaritzan emakumeen eginkizuna funtsezkoa bada ere, **ez ikusia** egin izan zaio.

ETA OSASUN KONTU BAT...

Gainera, produktu oso prozesatuek **azukre, koipe eta gatz kopuru handiak** dituzte eta ez dira oso nutritiboak izaten. Zehazki, Espainiako estatuan elikaduran gastatutakoaren % 70 elikagai prozesatuak dira. Horrek ondorio latzak ditu osasunean, hala nola arazo kardiobaskularrak, diabetesa, minbizia eta obesitatea. Izan ere, lautik bat dieta osasungaitz baten ondorioz hiltzen da. 2019ko datuen arabera, 820 milioi lagunek ez dute bizitza arrunta egiteko behar beste janari, eta ia **2000 milioik elikadura-segurtasun falta** moderatua edo larria pairatzen dute munduan.



INFORMAZIOA ETA DESINFORMAZIOA...

Elikagaien industriak tresna bat erabiltzen du sistema agroindustriala sustatzeko: **publizitatea**. Adingabe batek, 7.000 eta 10.000 iragarki artean ikusten ditu urtean zehar. Horietatik, % 66 elikagai osasungaitzak dira. Bestalde, **etiketak nahasiak** eta izaten dira eta, ondorioz, pertsonen % 64k ez dituzte horiek ondo ulertzen.

EREDU AGROEKOLOGIKOA

Eredu agroindustrialaren aurrean alternatiba ugari sortzen eta sendotzen ari dira. Alternatiba horiek eredu agroekologikoan kokatzen dira, non ekoizpen, eraldaketa eta merkaturatzeko jarduerak oso bestelakoak diren.

Ekoizpen agroekologikoak, bada, kontuan hartzen ditu ekosistemen dinamika naturalak eta baliabideak modu iraunkor batean erabiltzen ditu. Unibertsitate askok mundu osoko hainbat nekazarirekin lan egiten dute ezagutzak partekatzeko eta ekoizpen-sistema bidezko, efiziente, iraunkor eta errentagarri bat sortzeko. Eraldaketari dagokionez, eredu agroekologikoak elikadura osasungarriagoa sustatzen du eta, hortaz, eraldaketak gutxienekoak dira -maiz, artisaulariak dira-, eta **gertuko zirkuituen** bitartez banatzen dira. Horrek ez du esan nahi seguruak edo osasungarriak ez direnik; izan ere, ohiko industrietan eta elikagaien garraioek bete behar dituzten osasun-baldintza berak betetzen dituzte.

Eredu agroekologikoaren eraginak oso bestelakoak dira eredu agroindustrialarekin alderatuta. Izan ere, eredu honen helburua elikagai osasungarriak ekoiztea eta herritar guztien eskura jartzea da. Hona hemen eraginetako batzuk:


- Tokian ahalduntzen du, tokiko komunitateek kontrolatzen baitituzte baliabideak.
- Tokiko eta gertuko ekonomia sustatzen du eta landa eremuak hustea ekiditen du, tokiko ekoizleak babestuz. Gertuko elikagaiak erosiz elikaduraren kontrola berreskura dezakegu eta produktu industrialen ordez elikagai osasungarriak eta jasangarriak orokortu.
- Bidezko prezioak.
- Erresilientzia eta ekoizpen-sistema iraunkorrak sustatzen ditu.
- Ingurumena errespetatzen duen ekoizpena egiten du.
- Genero-berdintasuna bermatzen du.
- Bioaniztasuna gordetzen du. Emakume baserritarrak haziak biltzeko eta babesteko tradizioa dute, horien aniztasuna eta moldagarritasuna hobetuz.
- Elikadura osasungarria. Sasoiko elikagai freskoak seguruak eta osasungarriak dira. Lautik bat dieta osasungaitz baten ondorioz hitzen da.

Ondorioak

Ikuspegi aldaketa horri esker, aurrerabidea bizitzaren aldeko apustutzat har dezakegu, kontzeptu antropozentrikoaz harago. Kontuan hartu behar dugu jendartearen biziraupena eta giza-bizitza **naturaren menpe** dagoela erabat. Gainera, elikadura-eredu bidezko, iraunkor, osasungarri eta gertukoetara igarotzeko prozesuak genero ikuspegia izan behar du derrigorez, elikagaiak **ekoizten dituzten emakumeak** ahalduntzeko eta zaintza-lanen aintzatespenaren eta **ardurakidetzaren** alde lan egiteko.

Dagokion garrantzia eman behar diogu elikadurari, bizitzarako ezinbesteko eta eguneroko jarduera gisa. Egunean hainbat bider jaten dugu eta, hala ere, ia ez diogu arreta jartzen janariari. Konturatu behar dugu, **elikatzeko modua elikadura burujabetzaren ildoan aldatzean**, gure osasunean eta ingurunean (gizartean eta ingurumenean) eragiten ari garela. Elikadura erdigunean jartzeko kontsumitzaileok gure boterea erabili behar dugu.

Zentzu horretan, jendartearen zati handi bat elikadura-eredu industrializatuaren ondorio negatiboez jabetzen da eta kezkatuta dago baina beharrezkoa da elikadura burujabetzaren aldeko **politika publiko eraginkorrak** egitea. Izan ere, gaur egungo elikadura ereduak ez da jada erabilgarria munduko biztanle gehienentzat eta, are gehiago, mehatxu larri bilakatu da.



Erreferentziak Eta Baliabideak

FAO eta OME (2008). **El desafío de la nutrición. Soluciones desde los sistemas alimentarios.** Hemen: <https://apps.who.int/iris/bitstream/handle/10665/277441/WHO-NMH-NHD-18.10-spa.pdf>

FAO (2020). **Ciudades y gobiernos locales a la vanguardia en la construcción de sistemas alimentarios inclusivos y resilientes: Principales resultados de la encuesta de la FAO "Sistemas alimentarios urbanos y COVID-19".**

Hemen: <http://www.fao.org/publications/card/en/c/CB0407ES>

García, Ferrán (2013). Compra pública en sistemas alimentarios locales. Impactos sociales, ambientales y económicos. Hemen: https://justiciaalimentaria.org/sites/default/files/docs/compra_publica_en_sistemas_alimentarios_locales_-_impactos_sociales_ambientales_y_economicos.pdf

Espinosa, Adriana eta García, Ferrán (2021). Plastívoros, la verdad sobre el ingrediente más tóxico de nuestra alimentación. Hemen: https://justiciaalimentaria.org/sites/default/files/docs/plastivoros_completo_web_sencillas.pdf

Ikus-entzunezko baliabideak

El Mundo según Monsanto:

<https://www.youtube.com/watch?v=PwxCEKotnbg>

Las semillas del beneficio:

https://www.documaniatv.com/social/las-semillas-del-beneficio-video_3915d1b9f.html

BARBECHO. En el corazón del despoblamiento:

https://www.youtube.com/watch?v=_yzC-6n_FK8

Regresando al futuro. Orduña hacia la Soberanía Alimentaria:

<https://www.youtube.com/watch?v=0XHDFNUL-yc>

La opción que falta...Soberanía Alimentaria?:

<https://www.youtube.com/watch?v=MhMhHFKVMMs&t=38s>

Los agricultores ecológicos/orgánicos, nuestros superhéroes cotidianos:

https://www.youtube.com/watch?v=wFFY_Zu4uHE

La voz del viento. Semillas en transición.

<https://vimeo.com/59138479>

3



ELIKADURA- HEZKUNTZA

María Bermudez Rus
Lucía López Marco

Sarrera

Modulu honetan gure elikadura-sistemaren ezaugarrietan sakondu eta elikagaien industriak gure erosketa-erabakietan eragiteko duen boterea aztertuko dugu. Horren aurretik, bada, zenbait kontzeptu ezagutu behar ditugu:

Nutrizioa: prozesu biologiko bat da. Horretan izaki bizidunok bizi-prozesuak mantentzeko beharrezkoak diren substantziak ateratzen ditugu elikagaietatik. Funtzio biologiko ez-borondatezkoa da, organismoaren barruan ematen baita.

Elikadura: hainbat elikadura-praktikaren multzoa da. Horien bitartez ekoiztu, eraldatu, banatu eta kontsumitu diren elikagaiak aukeratzen ditugu.

Elikadura iraunkorra: ingurumena eta gizarte-harreman bidezkoak zaintzen dituzten elikagai osasungarriak, eta ekonomikoki bideragarriak aukeratzeko prozesuak biltzen ditu. Elikadura iraunkorreko eredu batekin oraingo eta etorkizuneko belaunaldien elikadura eta bizi-kalitatea bermatu ahal izango dugu.

Elikadura eskubidea: elikadura kuantitatibo eta kualitatiboki egokia eta nahikoa zuzenean edo erosi bitartez eskuratzeko aukera erregularra, etengabea eta askea izateko eskubidea da, herritarren kultura-tradizioekin bat datorrena eta bizitza psikikoa eta fisikoa, indibiduala eta kolektiboa, larritasunik gabekoa, pozgarria eta duina bermatzen duena (Olivier de Schutter Elikadurari buruzko NBEko Kontalari Berezia).

Elikadura segurtasuna: osasunaren eta garapenaren alorretan elikadura segurtasunaren kontzeptu desberdinak erabiltzen dira. Izan ere, osasun ikuspegi batetik horrek kalterik ez egitea esan nahi du; FAO bezalako nazioarteko erakundeentzat, aldiz, elikadura segurtasuna elikadura eskubidea bermatzea da, hau da, herritar guztiek elikadura kuantitatibo eta kualitatiboki egokia eta nahikoa zuzenean edo erosiz eskuratzeko aukera erregularra, etengabea eta askea dutela, herritarren kultura-tradizioekin bat datorrena eta bizitza psikikoa eta fisikoa, indibiduala eta kolektiboa, larritasunik gabekoa, pozgarria eta duina bermatzen duena.

Holako elikadura dugu gaur egun?

ELIKADURA-TRANTSIZIOAK

Historian zehar, herritarren elikadura-patroiak naturaltasunez aldatu dira behin eta berriro baina... **Zer gertatu ote da gure dietan, elikagaiak, nutriente-iturri izan beharrean, gure gaixotasunen eragile nagusi bilakatzeko?**

Gizateriak izan dituen **nutrizio-trantsizioen** artean, azken hamarkada hauetan bizi ari garen honek ezaugarri berezi hauek ditu: aldaketaren abiadura handia eta hura bizi duten pertsonen kopurua.

Gaur egungo elikadura-trantsizio honetan, bada, tradiziozko dieten ordeztasun energetiko handiagoko dietak nagusitu dira, gehitutako koipe eta azukre gehiago dituztenak.

Halaber, haragi eta elikagai prozesatu gehiago kontsumitzen dira eta karbohidrato konplexu, zuntz, lekale, barazki eta zereal gutxiago. Horrek eragin handia du gure osasunean.

Gaur egun, **jaten ditugun elikagaien % 30 bakarrik dira freskoak**, gainontzeko % 70 prozesatuak eta ultraprozesatuak dira. Baina hori ez da beti horrela izan. Duela 50 urte bakarrik egoera kontrakoa zen: elikagai prozesatuak baino askoz elikagai fresko gehiago kontsumitzen ziren. Egoera honek, beraz, alarmak piztu ditu; izan ere, dieta mediterranea galtzen ari da eta elikagai osasungaitzak, ultraprozesatuak eta eutsiezinak nagusitzen ari dira.



ZER ONDORIO DITU ELIKADURA TXARRAK GURE OSASUNEAN?

Ezaguna dira elikadura txarraren ondorioetariko asko, hala nola elikadurak obesitatean, diabetesean, gaixotasun kardiobaskularretan edo minbizi mota batzuetan duen eragina. Institute for Health Metrics and Evaluation (IHME) institutuaren datuen arabera, lautik bat dieta osasungaitzaren eraginez hiltzen da, eta elikadura txarra gaixotasun-eragile nagusia da mundu mailan.

Argi dago lotura dagoela gaixotasunen eta elikadura-pobreziaren artean. Alde batetik, 800 milioi lagunek gosea pairatzen dute munduan (desnutrizioa) eta, bestetik, 1400 milioik gehiegizko pisua dute (malnutrizioa). FAOren arabera, munduan behar beste elikagai dago pertsona guztiak modu egokian elikatzeko.

Espainiako Estatuan soilik, urtero, 90.000 lagun hiltzen dira elikadura osasungaitzak eragindako gaixotasunen ondorioz. Izan ere, elikadura txarrari dagozkio gaixotasun kardiobaskularren % 40-55, diabetes kasuen % 45 eta minbizi mota batzuen -hala nola urdailekoa eta kolonekoa- % 30-40. Elikadura osasungaitzaren ondorioz, munduan, 6 milioi lagunek pairatzen dituzte hiru gaixotasun horiek.

Hala ere, **elikagaien banaketan desparekotasun** arazo bat dago, bai mundu mailan (Hegoalde globaleko herriak vs. Iparralde globaleko herriak) bai tokian (maila sozioekonomiko txikiko auzoak vs. maila sozioekonomiko handiko auzoak).

ELIKAGAIK ALFERRIK GALTZEA

Ekoizpenetik kontsumora eta kontsumo osterara elikagaiak alferrik galtzen dira eta horrek, bada, elikagai-sistema industrializatuaren efizientzia eza erakusten du.

Europako Batzordearen arabera, urtean **1.300 milioi tona elikagai** baino gehiago alferrik galtzen dira, hau da, munduko ekoizpen osoaren heren bat. Horietatik, 89 milioi tona Europar Batasunean galtzen dira, elikagai horiek egoera onean badaude ere.

Elikagaien industriaren ezkutuko interesak

Ikusi dugun bezala, elikadura txarra eta horri lotutako gaixotasunak espainiako Estatuko osasun-arazo nagusia dira. Arazo handi horren aurrean, administrazio publikoek horren kausak identifikatzeko, arazoa konpontzeko eta irtenbide eraginkorrak abian jartzeko plan bat izan beharko lukete. Aitzitik, ikerketa honetan ikusten den bezala, **administrazioak ez dira ezer egiten ari** arazoa konpontzeko. Are gehiago, industriaren aliatu bilakatu dira herritarren interesen aurkako politika publikoak diseinatuz eta aplikatuz.

Hala, industriak kontakizun bat sortu du eta, marketin-kanpaina onei esker, eta hainbat fundazio eta erakunde publiko eta pribaturen laguntzaz, hura errepikatu eta gizartean txertatzea lortu du. Mezu gehienak **norbanakoari leporatzen** diote errua, ohitura txarrekin, dieta desorekatuarekin eta ariketa faltarekin lotutako kontu bat delakoan. Beste mezu batzuen arabera, aldiz, "ez dago elikagai onik edo txarrik, dieta osoaren araberrako kontu bat da". Gainera, Nutrexa edo Bimboren orde, unibertsitate ospetsu batek esaten badu hori, mezuak indar handiagoa izango du. Enpresa horiek elkarrekin lortzen ari dira banaka lortu ezin izango luketen hori. Izan ere, elikadura txarra sustatzen duten elikagai-enpresa handi gehienek beren irudia osasun onarekin lotzea lortu dute. Horretarako, ezinbestekoa izan da **administrazio publikoaren eta erakunde medikuen laguntza**. Nekazaritzako elikagaien enpresek badakite, iritzi publikoa bereganatzeko borrokan funtsezkoa dela haien argudioek erakunde zientifikoaren eta zientzialarien babesa izatea.

NOR DA NOR ETA HAIEN TRESNAK

Nekazaritza-industriaren eragileen eta haien estrategien artean, aipatzekoak dira honako hauek: unibertsitate-katedrak diruz laguntzeko estrategiak, administrazioari lotutako ikerketa-zentroak sortzea, ikerketa zientifikoak ordaintzea; lagunak postu garrantzitsuetan kokatzea (haien izen-abizenekin), osasun-arloko profesionali bisita egitea, hedabideekin lankidetzatza-hitzarmenak sinatzea eta administrazioekin batera kanpainak sortzea.



Elikadura-hezkuntza, generoa eta publizitatea

BERRIZ ERE GENERO KONTU BAT

Hainbat mendez, elikadura-hezkuntza emakumeen **ardura** ia eskusiboa izan da. Gure amak, amamak eta birramamak arduratu dira elikagai osasungarriari buruzko informazioa bilatzeaz, platerak erakargarriagoak egiteko errezetak asmatzeaz eta, batez ere, gure elikatzeko modua hezteaz, gure osasunerako onuragarriagoak diren elikagai horiek bila ditzagun.

Baina emakumeak lan-merkatuan sartzearekin batera, elikadura-hezkuntzara bideratutako arreta murriztu egin da denbora faltagatik. Oro har, familiako beste kide batzuek -emakumeak ez direnak- ez dituzte lan horiek ardurakidetzaz beren gain hartu; eta Estatuak ere ez, **hezkuntzaren** bitartez, **osasan-zentroetan** informazio egokia emanez edo elikadura osasungarria sustatuko duten **politika publikoak** abian jarritz. Beraz, elikagaien industria handiek bete dute hutsune hori eta, gaur egun, "elikadura-hezitzaile" nagusietako bat dira, marketin eta publizitate-estrategia ugarien bitartez.



EZ DA EGIA, SOILIK PUBLIZITATEA

Publizitatea gure eguneroko elementu bat da, hori ez du inork zalantzan jartzen. **Txikitatik** eta gure bizitza osoan zehar, publizitate-mezuak etengabe jasotzen ditugu, zuzenean edo zeharka, eta elikadurari lotutako iragarkiak protagonista nagusiak dira horien artean.

Hainbeste errepikatu dugu esaldi hori non normalizatu egin baitugu. Baina publizitateak ez gintuzke engainatu behar. Noski, ulertzen dugu bere estrategien artean erabiltzen dituztela esajerazioa, lirismoa, metaforak edo hunkiberatasuna. Hori ebokazio-estrategia legitimoa da. Baina, gauza bat erakutsi eta beste bat saltzeko erabiltzen dutenean beste eremu batean sartzen gara. Zer eremu? Iruzurarena, argi eta garbi. **Publizitate hori iruzurtia** da, kontsumitzaileentzat engainagarria den informazioa erabiltzen baitu; hau da, kontsumitzailea, erosterakoan, erabaki txarrak hartzera bultzatzen duten adierazpen edo omisio esplizitu edo inplizituak egite baititu.

NATURAL, ARTISAU ETA ETXEKOAREN MODA

Zer eragiten digute erakargarri horiek? Eta garrantzitsuena, horiek erabiltzen dituzten markak zer eskaintzen dute beren produktuak egokiak direla ziurtatu ahal izateko? Artisau-urdaiazpiko egosia erosten dugunean, benetan da artisaua arauak ezartzen duenaren arabera? Moldeko ogi naturala jaten dugunean, benetan da naturala? Zertan da naturala? Edo intxaurrekin aberastutako esneak gaixotasun kardiobaskularrak prebenitzen laguntzen digu, iragarkiak dioen bezala?

Elikadurako publizitate-erakargarriak, maiz, **inolako funtsik gabe** erabiltzen dira, legez kontra, edo arau-hutsuneak baliatuz, produktuak ezaugarri batzuk dituela sinestaraziz, benetan horiek ez baditu ere.

ARTISAUA

Erakargarri hau marka askok erabiltzen dute beren produktuak aurkezteko. Artisau-ekoizpena hainbat **araudiren bitartez** erregulatuta dago eta produktu bat artisaua izateko **zenbait ezaugarri** izan behar ditu, produktu industrialek ez dituztenak, noski. Hala ere, zenbait markak, artisau-ekoizpenaren oinarri horri jaramonik egin gabe, beren produktua artisau gisa iragartzen dute. Erakargarri hori erabiltzean, industriak kontzeptua hutsaldu egiten du benetan artisauak diren ekoizpenei kalte eginez.

NATURALA

Naturala kalifikatzailearen erabileran, elikagaien industriak errazago du. Izan ere, marka askok erabiltzen dute hori, kontzeptu erakargarria delako eta **araututa ez dagoen** kalifikatzailea delako. Beraz, marka askok lege-hutsune hori baliatzen dute.

ETXEKOA

Hitzak berak ondo adierazten duen bezala, produktu bat etxekoa izateko, etxean egina izan behar du. Hortaz, gehienez, eskala txikiko produktuak izan beharko lirateke, **zirkuitu laburrean** saltzen direnak. Europako araudiak ekoizpen-mota hori jasotzen du, hortaz, ETXEKOA eta antzeko hitzak horrelako ekoizpenetara mugatu beharko lirateke.

ABERASTUA

Askotan erabiltzen duten beste estrategia bat da produktu batean osasungarritzat hartzen den osagai bat sartzea. Horrela, publizitatea osagai horren inguruan egiten dute. Horren adibide argia da, intxaurrekin ABERASTUTAKO esnea. Fruitu lehorrek gaixotasun kardiobaskularrak prebenitzen laguntzen dute eta, hortaz, intxaurrekin birrindua gehitzen badiogu esnari, esan ahal izango dugu produktua onuragarria dela gure bihotzerako. Izan ere, ezin dugu oinarrizko gauza bat ahaztu: **elikagai askok onura horiek dituzte beren jatorrizko egoeran**, beste osagairik edo osagarri aktiborik gehitu gabe. Prozesatu gabeko elikagai gehienak aberastutako horiek baino osagarri onuragarri gehiago dituzte.



The best
SUMMER
ENJOY IT!

Alternatibak

EKINTZA INDIBIDUAL ETA/EDO KOLEKTIBOTIK

Elikadura-eredu osasungarriagoa, bidezkoagoa eta iraunkorragoa sustatzeko ezinbestekoa da modu kontziente eta informatuan kontsumitzea eta produktuak gure eskuetara heldu arte egin duen ibilbidea kontuan hartzea.

Sasoiko elikagaiak lehenetsi behar ditugu, gertukoak, ekologikoak, ontziratuta gabe saltzen direnak, batez ere plastikorik gabe (hura kudeatzeko zailtasuna direla eta). Hori funtsezkoa izango da dieta osasungarria eta jasangarria izateko.

Halaber, tokiko merkatuetan, auzoko dendetan edo kontsumo taldeetan erosten jarraitzea garrantzitsua izango da, tokiko ekonomia bultzatzeko eta enplegua sortzeko, landa-garapena eta herrien (gero eta biztanle gutxiago dituztenak) eta hiri handien (gero eta biztanle gehiago dituztenak) arteko oreka demografikoa sustatzeko. Gainera, eredu agroekologikoak ingurumena zainduko du eta ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harreman bidezkoagoak sustatuko ditu.

IRAKASKUNTZATIK

Ikasleei, haien egunerokoan eta bizitza profesionalean, elikagaien ekoizpen-, eraldaketa-, merkaturatze- edo kontsumo-aukera hauek guztiak zabaltzea posible da baina horretarako zenbait ekintza txertatu behar ditugu gure irakaskuntza-jardueran, hala nola txangoen helmuga aldatzea, curriculumeko edukiak ikuspegi eraldatzaile batetik lantzea, edo alternatiba horiek zuzenean ezagutzea. Gure lanaren bitartez publizitatearen eraginari aurre egin diezaiokegu edo, gutxienez, tresnak eskaini, ikasleek mezu horiek jarrera kritikoz ikus ditzaten.

Ikusi dugun bezala, elikadura burujabetza, iraunkortasun, genero eta gizarte-justiziako ikuspegietatik, elikadurak arlo asko hartzen ditu eta, hala, ardatz gisa har dezakegu ikastetxeko edozein heziketa-modulu edo hezkuntza planetan.



Erreferentziak eta baliabideak

Civio, Fundación eta García, Ferrán (2015). Confiad en mí. Puertas giratorias, conflictos de intereses y amistades peligrosas entre la industria y los organismos de salud. Hemen: https://justiciaalimentaria.org/sites/default/files/docs/informe_lobby_lobo.pdfhttps://justiciaalimentaria.org/sites/default/files/docs/informe_lobby_lobo.pdf

García, Ferrán (2016). Informe Dame veneno. Viaje al centro de la alimentación que nos enferma. Hemen: <https://defiendeme.org/wp-content/uploads/2018/09/informe-dameveneno-FINAL-BAJA.pdf>

García, Ferrán (2015). Informe Mentira Prodida. Breve repaso a la alimentación charlatana. Hemen: https://justiciaalimentaria.org/sites/default/files/docs/informe_mentira_podrida_breve_repaso_a_la_ailmentacion_charlatana.pdf

García, Ferrán (2018). Mi primer veneno. La gran estafa de la alimentación infantil. Hemen: https://justiciaalimentaria.org/sites/default/files/docs/primer_veneno_cas_web.pdf

Asensio, Claudia eta Reina, Liliana (2019). Guía Universitaria de la Alimentación Sostenible. Hemen: https://justiciaalimentaria.org/sites/default/files/docs/guia_universitaria_de_alimentacion_sostenible_informe_completo.pdf

Ikus-entzunezko baliabideak

Dame veneno, alerta alimentaria: <https://www.youtube.com/watch?v=DeawKDGisjA>

Dame veneno (kanpainia): https://www.youtube.com/watch?v=0ee-y1w1t_0&t=15s

A love story (Chipotle mexican grill): <https://www.youtube.com/watch?v=DDG-kumi6Pk>

Saber - Comer (CALISA-FAUBA): <https://www.youtube.com/watch?v=0UMZQDTht6E>

Las voces de la huerta (Ángela Palomares): <https://vimeo.com/143892834>

¿Y si cultivamos un mundo mejor? (Scarecrow_Chipotle Mexican Grill): <https://www.youtube.com/watch?v=DY-GgzZKxUQ&t=1s>

4

EKONOMIA ERALDATZAILEAK ETA LAN-EREMUA

**Anna Muñoz Gil
y Alicia Sevilla Atienza**

Sarrera

Modulu honetan ekonomiari eta lan-eremuari buruz hausnartu nahi dugu; izan ere, ikasleen kezka nagusietako bat **lana aurkitzea** da, beren bizitza mantentzeko behar dituzten ezinbesteko baliabideak lortu ahal izateko.

Onartu behar dugu helburu hori ez dela betetzeko erraza gaur egungo testuinguruan, eredu ekonomiko hegemonikoa baztertzaila baita berez. Baliabideak, informazioa, dirua eta boterea gero eta esku gutxiagotan daude, eta metaketa neurrigabe horren aurrean gero eta pertsona gehiago dago oinarrizko baliabiderik eta **giza eskubiderik** gabe. Elikadura egokia, osasuna edo etxebizitza dira, besteak beste, gaur egungo eredu ekonomikoak urratutako eskubideak. Izan ere, eredu horrek desparekotasun handiak eragiten ditu.

Hala ere, pertsona asko beste eredu ekonomiko, beste adierazle eta balio batzuk erabiltzen ari dira, munduko txoko guztietan. Alternatiba horiei “**ekonomia eraldatzaile**” deituko diegu, guztien helburua gizartea eta ekonomia eraldatzea baita, diru-metaketa barik, pertsonak, komunitateak eta ingurumena erdigunean kokatzeko.



Zer da ekonomia?

NONDIK DATOR HITZA?

Ekonomia gure inguruan dago, gure bizitzan eragiten du eta kezkatzen gaitu. Egutero, ekonomiaren egoerari buruzko albisteak ikusten ditugu; izan ere, gai horrek hedabideen diskurtsoaren zati handi bat hartzen du eta gosaria ere izorra diezaguke. Hitzaren jatorria ere interesatzen zaigu; izan ere, modulu honetan kontzeptu horren esanahiaren eta horri emandako edukiaren gainean hausnartu nahi dugu; zeintzuk izan diren alde batera utzitako elementuak eta horrek eragindako desparekotasunak. Baina, zer da benetan ekonomia?

Galdera horren aurrean, burura datozkigun lehenengo ideiak honako hauek dira: dirua, burtsa, enpresa handiak, BPGa, inbertsioak, lana... Baina interesgarria izan daiteke hitzaren erroa aztertzea. Izan ere, hitza grezieratik dator: **οίκος** – „etxea“ eta **νέμομαι** – “administrazioa”. Beraz, jatorriz, *ekonomia* hitzak familiak mantentzeko garrantzitsua den gauza bati zegokion; hau da, etxearen kudeaketari. Guztiok ekonomia hitzaren esanahia nola edo hala ulertzen dugun arren, ekonomia-zientziak horren definizioa eta jatorrizko esanahia eraldatu dute nagusi zen teoriaren arabera. Hala, “etxearen administrazio” horretatik gaur egungo **ekonomia eraldatzaileetara**, ekonomiak hainbat eta hainbat definizio ditu.

EKONOMIA-EREDUAK

Gaur egungo ekonomia eta lan-merkatuaren egoera ulertzeko, gaur egungo eredu hegemonikoaren, hau da, **eredu kapitalistaren** sorrera aztertuko dugu.

Adam Smith (1723-1790) ekonomia-zientzia modernoaren aitatzat hartzen da. Haren arabera, eredu kapitalista Nazioen hazkunde ekonomikoan oinarritzen zen. Hura, bada, kapitala metatzearen, merkatuak zabaltzearen eta ekoizpena, produktibitatea eta enplegua handitzearen ondorioz emandako prozesua zen. Smithen teoriak bi oinarri zeuzkan: lanaren banaketa eta espezializazioa eta baliabide naturalak bereganatzea. Baina gaur egungo *hiperteknologizazio*ko testuinguruan, non baliabideak agortzen ari diren, oinarri horiek ez dute jada balio. Hortaz, eredu kapitalista ez da erabilgarria XXI. mendeko desparekotasun eta iraunkortasun arazoei aurre egiteko. Are gehiago, horien sortzaile nagusitzat jo dezakegu.

Ondorioz, hainbat zientzia- eta gizarte-eremutatik ekonomia-eredu kapitalistaren funtzionamenduarekin kritikoak diren diskurtsoak garatzen ari dira. Hainbat buruk eta eskuk bizitzeko eta ekonomia egiteko -lan egiteko, habitatzeko, kontsumitzeko, elkarrekin bizitzeko- moduak sortzen ari dira hemen eta orain, kapitalismoaren kontrakoak diren oinarri materialak dituztenak. Hala, diskurtso hori **ekonomia eraldatzaileen** paradigmaren baitan egituratzen ari da.

ZER NOLAKO BALIOAK SUSTATZEN DITU EREDU BAKOITZAK?

Ekonomia eraldatzaileak sistema kapitalistaren marjinetan edo zuzenean kanpoan geratu diren **kolektiboetatik sortu dira** (emakumeak, jatorrizko herriak, ekonomia “informalak”, hiri inguruko auzoetako komunitateak, haien lurraldeetatik kanporatutako herriak, etab.) eta asko hazi dira azken hamarkadetan. Proposamen ekonomiko horiek **ikuspegi komun bat sortzeko erronka dute**; horrek gizartea eta ekonomia eraldatzeko kontakizun zabalago eta partekatatu batean biltzeko aukera emango baitie. Ekonomia eraldatzaileek hainbat balio eta helburu partekatzen badituzte ere, oraindik bide luzea dago ekonomia-eredu alternatibo horien **intersektionalitatera** heltzeko.

EREDU KAPITALISTA

Aberastasuna metatu.

Lan erreproduktiboa alde batera utzi edo kanporatu.

Kupula batek erabakiak hierarkizatzea.

Enpresa hierarkikoaren alde egitea.

Kapitala metatzea du helburu.

Aberastasuna (eta garapena) BPGaren bitartez neurtzen ditu.

Merkatuak eskaintza eta eskariaren bitartez bere burua arautzearen alde dago.

Bere jarduera nagusietako bat finantza-merkatua da.

Deslokalizazioaren alde dago, ekoizpen-kostuak murrizteko.

EKONOMIA ERALDATZAILEAK

Aberastasuna banatu.

Lan produktiboa eta erreproduktiboa banatu.

Erabaki ekonomiko handien demokratizazioa.

Enpresa kooperatibismoaren alde egitea.

Gizarte onura eta iraunkortasun ekologikoa dituzte helburu.

Aberastasuna neurtzeko lan erreproduktiboa, guztion ona edota ingurumen-iraunkortasuna hartzen dituzte kontuan.

Estatuak edo komunitateek eurek araututako merkatuaren alde daude, horrek gizarte- eta ingurumen-irizpideak dituelarik.

Finantza-merkatua ezabatu nahi dute, dirua trukerako baliabidetzat hartzen baitute, ez salerosgaitzat.

Ekonomia birlokalizatzaren alde daude, tokiko ekonomia bultzatzeko eta komunitate egonkorrak sortzeko.

Zer ekarpen egiten dute ekonomia eraldatzailerak?

Atal honetan, ezinbestekotzat jotzen dugu ekonomiaren ikuspegi alternatibo horiek zer ekarri duten aztertzea, eta nola azterketa berri horiek pertsonentzat eta planetarentzat etorkizun hobe bat irudikatzeko aukera ematen diguten. *Amaia Pérez Orozco* ekonomialariari hartutako lau funtsezko elementu hauek aipa ditzakegu:

DESASKUNDEA

Naturarekin batera bizi ahal izateko kontsumoa murriztu beharra dagoela mahaigaineratzen du. Izan ere, kapitalismoak biosferaren **muga naturalak** alde batera utzi ditu eta, muga horiek gainditu direnez, baliabide material eta energetikoen erabileran soiltasunaren eta birbanaketaren irizpideak sartu beharra dago. Hau da, **hobeto bizi gaitzke merkatuan gutxiago kontsumituz** eta, hortaz, soldataren truke ordu gutxiago lan eginez. Horrela, bada, beste jarduera batzuetarako astia izango dugu.

INTERDEPENDENTZIA

Zaintza-lanek erakusten digute bizitza interdependentzia-errealitate bat dela; **kalteberatasuna kudeatzeko** modu bakarra besteekin batera da. «Prekariatateak dakar ezagutzen ditugun, ia ezagutzen ez ditugun edo batere ezagutzen ez ditugun beste pertsona batzuen menpe egotea» (Butler, 2009: 30)

HOBETO BIZITZEA

Birpentsatu behar dugu zerk egiten gaituen zorientsu, gure **bizi estiloak** eraldatzen saiatuz. Zehaztu behar dugu zer nahi dugun, zerk egiten duen bizitza bizigarri, eta hori kolektiboki eta eskubideen bitartez bermatu behar dugu. Marisa Pérez Colinaren arabera, **ongizatea** da bizitza duineko proiektu propioak eta autonomoak gauzatzeko baliabideak guztion artean bermatzea.



ETXEAK DEMOKRATIZATZEA


Arlo "pertsonala" politikoa da. Itxuraz pribatua den arlo horrek arau-egitura zapaltzaileen eragin sakona jasaten du, eta arlo erreproduktiboari ez ikusia egiten laguntzen du. Horregatik honako hauek lortzeko lan egin beharra dago: etxe barruan **harreman horizontalak** sortzea, askatasunez aukeratutako bizikidetzak sortzea, eta askatasuna eta konpromisoa uztartzea, arazoak komunitatean sozializatuz politika publikoen partaidetzarekin.

Ekofeminismoaren beste ekarpen batzuk

Ekonomia feministatik aurrerapen handiak egin dira zaintza-lanen ikerketan, eredu kapitalistak erabat kanpoan uzten duen bizitzaren erreproduktioarako funtsezko ardatz gisa. Ana F. Vegak (2006) errealitate berri bat marraztea proposatzen du, "sareen eredu" baten bitartez elkarri lotutako hiru maila hauek antolatzen dena: etxeak, komunitateak eta erakunde kolektiboak.

Ikus dezakegunez, ekonomia feministak etxeetako, enpresetako eta estatuko harreman ekonomikoaren azterketa sakon bat eskaintzen du. Funtsezko eginkizuna ematen dio lan erreproduktiboari (horretan sartzen dira elikadura eta familien elikadura-hezkuntza), bizitza ezinezkoa baita hura gabe. Beraz, historikoki baztertuta egon diren lanak bistaratzen ditu (zaintzak, garbiketa, janaria prestatzea, etxea antolatzea...) eta **zaintza lanak** aintzat hartzen dituen eta bizitza duinak ahalbidetzen dituen eredu ekonomiko bat lortzeko bidean kokatzen da.

Ikuspegi ekofeministatik, sistema ekonomikoak bere aberastasun iturriak eta lehentasunak irauli behar ditu, izaki ekodependenteak eta inderdependenteak gairela onartuz.



Iturria: Guía de análisis de prácticas de corresponsabilidad en la Economía social y solidaria. MARES Madrid (2019).

Ekonomia eraldatzaileak

Hemen dituzue proposamen ekonomiko eraldatzaile interesgarrietariko batzuk:

EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA

Ekonomia sozial eta solidarioa kooperatibismoan oinarrituta sortu zen, baina kooperatiben eta gizarte-enpresen praktikak eredu demokratikoago eta horizontalagoetara eramanez. *Kooperatibismo klasikoaren balioak* berreskuratzen eta sakontzen ditu *Ekonomia Solidarioaren Printzipioen Gutunean*. Oraindik ere, hura berrikuspen prozesuan dago, interseksionalitatea, genero-ikuspegia, jasangarritasuna eta datozen belaunaldiekiko konpromisoa hobeto txertatzeko. Zentzu horretan, Argentinan eta beste herrialde batzuetan, joera horrek elkarguneak izan ditu Herri Ekonomiarekin (gurean ekonomia “informala” izenez ezagutzen duguna).

EKONOMIA FEMINISTA

Bere ardatza da bizitza eta zaintza-lanak prozesu ekonomiko eta sozialen erdigunean kokatzea. Joera horri atxiki zaizkion ekonomialariek zaintzaren krisiaren berri eman digute azken urteotan, baita kapitalaren metaketa-ereduak pertsonengan eta planetaren baliabideetan izan ditzakeen ondorioen berri ere. Izan ere, gaur egun, ondorio horiek gure bizitzan hautematen ditugu. Hala, *Amaia Pérez Orozcok* edo *Cristina Carrascok* bizitza ahalbidetzen duten prozesu horiek mantenduz emakumeek betetzen duten funtsezko eginkizun hori bistaratzeko azterketa-fokua osatzen dute, baita beste eremu batzuk bistaratzeko ere, hala nola soldata-arrakala, zaintza-lanen prekarizazioa eragiten duen faktore kulturala edo lan-merkatuaren egiturak duen segregazio horizontala eta bertikala.



KOMUNEN EKONOMIA

Ondasun pribatuetan oinarritutako ekonomiaren paradigma gainditu nahi du, zenbait *ondasun komun* definituz. Horretarako, pertsona guztiak interdependentek eta ekodependenteak garela oinarri hartzen du. Hala, gizarteak irauteko behar duen horren arabera definitzen ditu ondasun komunak eta hiru talde hauetan sailkatzen ditu: hiriko komunak, komun naturalak eta komun digitalak. Ondasun komunak kudeatzeko, horiek modu jasangarrian kudeatuko dituen komunitate politikoa sortzea proposatzen du, autogestioan eta komunitatearen partaidetza horizontalean oinarrituta eta merkatua-estatua dualtasuna gaindituz. Ondasun komunalak edukitzeak, eskubideak emateaz gain, eginkizunak eta ardurak ere ematen dizkigu eta balio hori funtseko hezkuntza-lan baten bitartez sustatu beharra dago.

AGROEKOLOGIA ETA ELIKADURA BURUJABETZAREN ALDEKO MUGIMENDUAK

Agroekologiak eta elikadura burujabetzaren aldeko mugimenduak funtsezko betekizuna dute nekazaritza- eta elikadura-eredua bizitza mantentzeko gako gisa birpentsatzean. Horrek, bada, Lurrarekin eta ziklo naturalekin dugun harremana ere hausnartzera garamatza. Hala, proposamen honek, eredu ekonomiko bat izan gabe, ekonomia ekologikoaren, desazkundearen eta guztien onaren ikuspegiak konektatzen ditu. Azken urteotan, bere argudioen berrikuspen sakona egin du, emakumeek elikadura eskubidea lortzeko duten balioa azpimarratzeko. Hortaz, ekonomia feministaren proposamenekin bat egiten hasi dela esan dezakegu.



EKONOMIA EZ HAIN ERALDATZAILEAK

Ekonomia-ikuspegi berri horiek benetako alternatiba gisa agertzeko aukera bilatzeak arrisku sotil bat dakar: ekonomia kapitalistaren esparruan jarraitzen duten baina politikoki zuzena den elementuren bat barneratzen duten joerak agertzea, funtsean eraldatzaileak ez direnak.

Hori da, hain zuzen, **ekonomia berdearen** edo **kapitalismo berdearen** kasua. Izan ere, horren helburua gaur egungo kapitalismoaren ingurumen-ondorioak leuntzea da, ez ekonomia-sistema aldatzea. Zalantzarik gabe, hori aurrerapauso bat da, baina ez du inolako aldaketarik ekarriko aberastasuna banatzeari edo desparekotasunak murrizteari dagokienez.

Era berean, **ekonomia zirkularrak** birziklatzearen eta hondakinak ekoizpen-sisteman lehengai gisa sartzearen aldeko apustua egiten du baina ia ez du azpimarratzen kontsumoa murriztu beharra dagoela. Ondo dakigu hondakin guztiak ezin direla berrerabili edo birziklatu, eta baliabide bat ezin dela etengabe berrerabili. Gainera, birziklatzearen esparruan aritzen diren enpresak ere metaketa-sistema kapitalistan oinarritzen dira eta, hortaz, ez dute desazkundearen edo birbanaketaren aldeko eredu bat ordezkatzeko.

Beste alde batetik, **ekonomia inklusiboa** sistematik kanpo geratzen diren sektoreengan kapitalismoak eragindako ondorioak leuntzeko sortu zen. Proposamen hori Estatuaren esku-hartze sendoan oinarritzen da baina, izan ere, Estatu guztiak ez dira gizarte-babeserako sistemetan hainbeste inbertitzeko gai. Hau da, ekonomia-sistema kapitalistak aberastasuna gero eta esku gutxiagotan metatzen jarraituko luke eta, hortaz, larrialdiko konponbide bat besterik ez da, pertsona gutxiengana helduko dena baina desparekotasunak konponduko ez dituen.

Azkenik, nazioartean eztabaida handia dago ekonomia kolaboratiboak definitzeko; izan ere, hauek oso modu desberdinak dituzte ohiko enpresamoduetatik kanpo baliabideak kudeatzeko eta zerbitzuak eskaintzeko. Denbora-bankuak, berdinen arteko monetak, lurra partekatuzeko proiektuak, trukeak, *co-working* eremuak edo *crowdfunding* ekimenak... Horiek adibide positiboetako batzuk dira. Txanponaren beste aldekoa Uber, Airbnb edo Glovo bezalako enpresetan ikusten dugua, horietan eredu kapitalistak ekonomiaren antolakuntza-modu horien inguruan dauden hutsune legalak baliatzen baititu aberastasuna metatzen eta biztanleen oinarrizko premiekin espekulatzen jarraitzeko.



Lan-merkatuaren sartzea

IRAKASKUNTZA-LANA

Gaur egungo, egoera aldakorrean, irakasleok erronka bat dugu: gure ikasleak prestatzea, **lan-merkatu erabat aldakor eta gorabeheratsu** bati eta aberastasuna esku gutxitan metatzeko eta, ondorioz, baztertzeko joera duen ekonomia-sistema bati aurre egin diezaioten. Egoera horretan, eredu kapitalistatik beste proposamen bidezkoago, iraunkorrago eta ekitatiboago batzuetara igarotzeko helburuz elkarrekin lan egin nahi badugu, gure ikasleek bi oinarri beharko dituzte bide horri ekiteko: **balio-eskala** sendo bat (balio ekosozialak) eta ekonomia-eredu bortitz baten aurrean beren bizitza-proposamena aurrera eramateko **tresna-kutxa** bat.

Ekonomia eraldatzaileek proposatutako balioei dagokienez, hauek pedagogia eraldatzaileek proposatutako printzipioekin bat datoz erabat (1. moduluan ikusi genituen horiek). Horrek, bada, zentzu handia du, proposamen bien helburua gure gizartea **positiboki eraldatzea** baita. Gogora dezagun pedagogia eraldatzaileak hezkuntza emantzipatzailean oinarritzen direla eta haren printzipioak oinarri izango direla izan daitezkeen beste mundu batzuk lortzeko, hausnarketaren, pentsamendu kritikoaren, elkarrizketaren eta ekintzaren bitartez.



Oinarri horrekin, gure ikasleak trebatzeko **tresna-kutxa** diseinatu beharko dugu; **sortu, kooperatu, aniztasuna aintzat hartu, esperimentatu, komunikatu, zalantzan jarri eta iker dezaten eta, batez ere, huts egin dezaten eta erresiliente izan daitezen.** Zoritxarrez, lan-munduak huts egiteko aukera gutxi ematen ditu, horren menpe baitago ekonomia-ekimenen bideragarritasuna eta iraunkortasuna. Hala ere, hezkuntza-eremua balia dezakegu, hura ikasleak trebatzeko dituen esperimendu-gela gisa erabiltzeko. Hori dela eta, **erronketan oinarritutako ikasketa** edo proiektuetan oinarritutako ikasketa bezalako metodologiak oso erabakigarriak izan daitezke gaitasun horiek garatzeko.

ZENBAIT ORIENTABIDE

Gerora emaitzarik izan ez dezaketen errezetak emateko asmorik gabe, berrikuntza pedagogikoko hainbat esperientzian errepikatzen diren zenbait elementu aurkitu ditugu, ikasleek tresna eta balio horiek eskura ditzaten lagun dezaketenak:

- **Zeharkako proiektuak** sortzea, behin eta berriro gaitasunak garatzen lagun dezaketenak.
- Ekintza puntualak eta LPO edo EES moduluekin konexiorik ez dutenak saihestea.
- Autonomia sustatzea **plangintza-, jarraipen- eta autoebaluazio-tresnen bitartez.**
- **Gelatik kanpoko eskolak** sustatzea, lurraldea eta benetako arazoak ezagutzeko aukera ematen dutenak.
- Motibazioa, parte-hartzea eta ikaspenak (arrakasten zein "hutsen" ondorioz egindakoak) **ospatzea sustatzea.**
- Motibazioaren, esperimendazioaren, lankidetzaren eta entzute aktiboaren **eredu izatea.**
- Eraldatzeko helburuarekin bat datozen ebaluazio **irizpideak** eta metodoak berrikustea eta txertatzea.

ERALDATZEN JARRAITZEA

Ziur gaude zuen irakaskuntza-jardueran beste proposamen eraldatzaile asko erabiltzen dituzuela eta, horregatik, horiek partekatzerara animatzen zaituztegu. Bidaietarako email bat info@redalimentacion.org helbidera eta zuen lanbide-arloaren **TRESNA-KITan** partekatuko ditugu.



Erreferentziak eta baliabideak

Orozco, Amaia P. (2014). **Subversión feminista de la economía, Madril, Traficantes de sueños.** Hemen: <https://www.traficantes.net/sites/default/files/pdfs/Subversión feminista de la economía Traficantes de Sueños.pdf>

CERAI (2019). **100 Iniciativas locales para una alimentación responsable y sostenible.** CERAI 2019 Fundación Carasso. Hemen: https://cerai.org/wordpress/wp-content/uploads/2019/05/publicación_100iniciativasSATenEspaña-CERAI.pdf

ACPP (2018). **La economía social y solidaria en el contexto educativo. Guía para el profesorado. Madrileko Udala.** Hemen: [https://www.acpp.com/wp-content/uploads/2018/03 ACPP_ESS_contexto_educativo_web.pdf](https://www.acpp.com/wp-content/uploads/2018/03_ACPP_ESS_contexto_educativo_web.pdf)

Hegoa eta Bidezko Elikadura (2020). Eta kooperatiba agroekologiko bat sortuko bagenu? Erronketan oinarritutako ikaskuntza kolaboratiboa. Hemen:

Gaztelaniaz. https://redalimentacion.org/sites/default/files/Cooperativa agroecologica simples_compressed.pdf

Euskaraz. https://redalimentacion.org/sites/default/files/Cooperativa agroecologica EUSKERA simples_compressed.pdf

Katalanez: https://redalimentacion.org/sites/default/files/Cooperativa agroecologica CATALAN simples_compressed.pdf

Mugarik gabeko Ekonomilariak (2019). **Erronketan oinarritutako lankidetzak-ikaskuntzari buruzko gida. Ekonomia Sozial eta Solidarioa lantzen LHn eta Unibertsitatean.** Hemen:

Gaztelaniaz. <https://ecosfron.org/wp-content/uploads/2020/02/GUÍA-DE-APRENDIZAJE-COLABORATIVO-BASADO-EN-RETOS-castellano.pdf>

Euskaraz: <https://ecosfron.org/wp-content/uploads/2020/02/GUÍA-DE-APRENDIZAJE-COLABORATIVO-BASADO-EN-RETOS-euskera.pdf>

Ikus-entzunezko baliabideak

Herrero, Yayo (2020). Emergencias: Una mirada polisémica a tiempos excepcionales. La Casa Encendida. Hemen:

https://www.youtube.com/watch?v=0dE0uBe7TCg&ab_channel=LaCasaEncendida

Bidezko Elikadura (2018). Alimentando La Habana.

Hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=CisNozTjBXU>

Carrasco, Cristina (2013). La economía feminista.

Hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=HylglzHxehU>

Mugarik gabeko Ekonomilariak (2017). Haz economía: si no la haces, te la hacen.

Hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=3fl8bjtguOU&t=2s>

5

HEZKUNTZA BERRIKUNTZAKO PROIEKTUAK EGITEKO ZENBAIT IDEIA

Gema Celorio Díaz
Patricia Gómez Ruiz



Inspiratzen gaituzten esaldiak

“Hezkuntza berrikuntza erakunde-kudeaketari, curriculumari eta/edo irakaskuntzari lotutako elementuen aukeraketa, antolaketa eta erabilera sortzaileko prozesu bat. Hala, normala da hezkuntza berrikuntzak arlo batean baino gehiagotan eragitea; izan ere, erantzun integrala behar izaten duen premia edo arazo bati erantzun ohi dio. Erantzun integrala emateko, bada, arazoak konpontzera bideratutako eredu bat erabili behar da eta horrek honako hau eskatzen du: aurrez zegoen egoera hobetuko duen aldaketa iraunkorra lortzeko helburuarekin hainbat ekintza garatzea, berariaz eta modu sistematikoan garatu behar direnak derrigorrez. Ekintza horiek garatzea kudeaketa demokratiko batek sustatu behar du; alde batetik, sortzeko prozesuari norabide horizontala emanez eta, bestetik, aldaketa banakako esperientzia bezala bizitzea lortuz, hainbat eragileren lankidetzak eskatzen duena” (Barraza, 2013:15).

“Berrikuntza on batek hezkuntza-prozesuaren edo prozesu pedagogikoaren beste osagarri batzuekin integratzea lortzen du, hezkuntza-hobekuntza ekarriko duen sinergia eragiteko” (Barraza, 2013:16).

“[...] banakako konpromiso bat izango da, gure lana ikasleen prestakuntza egoki baterako oztupo bilakatzen duten baldintzak identifikatzeko eta, ahal bada, ezabatzeko. Prozesuak ez du hasierarik ez amaierarik, irakaskuntza arduratsuaren berezkoa baita”. (Martin, 1992:23).

Hezkuntza berrikuntzako proiektu baterako egitura posiblea

| | | |
|--|---|---|
| NORTZUK IZANGO DIRA ERAGILE BERRITZAILERAK? | <p>IRAKASLEAK</p> <p>ZUZENDARITZA-TALDEA</p> <p>IKASLEAK</p> <p>FAMILIAK</p> <p>EKONOMIA</p> <p>ERALDATZAILERAK</p> <p>ENPRESAK</p> <p>GIZARTE-ERAGILEAK</p> <p>ERAKUNDEAK...</p> | <ul style="list-style-type: none">• HEZKUNTZA BERRIKUNTZAKO PROIEKTUAREN EDUKIA ETA IZAERA PENTSATZEN, EZTABAIDATZEN ETA IDENTIFIKATZEN DUEN TALDEA IDENTIFIKATZE/MOBILIZATZEA. OSATZEN DUZUEN TALDE MOTORRAREKIN GAI BATEN INGURUKO PRESTAKUNTZA JASOTZEA PROPOSATZEN DIZUEGU.• TALDE BAT OSATZEAREN GARRANTZIA AZPIMARRATU NAHI DUGU (3TIK 7 KIDERA BITARTEKOA, AHAL BADA) BULTZADA KOLEKTIBOA EMATEKO ETA PROIEKTUAREN IRISMENA HANDIAGOA IZAN DADIN. GARRANTZITSUA DA MOTIBAZIO HANDIAGOA DUTEN LAGUNEKIN HAZTEA ETA GERO INDARRAK METATZEN JOATEA.• GURE KASUAN ELIKADURARI LOTUTAKO PROPOSAMENEKIN LAN EGINGO DUGUNEZ, INTERESGARRIA IZAN DAITEKE BERTAKO GIZARTE-ERAGILEEI ETA EKOIZLEEI PROIEKTUAN PARTE HARTZERA GONBIDATZEA (DISEINUTIK GARAPENERA ETA EBALUAZIOARA).• BESTE IKASTETXE BATZUEKIN EDO IKERTU ETA HOBETU NAHI DITUGUN GAIEKIN LAN EGITEN DUTEN HEZKUNTZA ERAKUNDEEKIN EDO GKEEKIN ALIANTZAK SORTZEA. |
| ZER ARGAZKI DUGU? HEZKUNTZA-DIAGNOSTIKOA | <p>TESTUINGURUA</p> | <ul style="list-style-type: none">• GARRANTZITSUA DA NABARMENTZEA GURE IKASTETXEAREN INGURUNEARI (LURRALDEARI) BURUZKO INFORMAZIOA EMATEN DIGUTEN ELEMENTUAK (HIRI/LANDA EREMUA, BIZTANLERIA -BATEZ ERE GURE IKASTETXERA DATORRENA-, FAMILIA MOTAK), JARDUERA EKONOMIKOAK (HEMEN BATEZ ERE ELIKADURAREKIN ZERIKUSIA DUENA INTERESATZEN ZAIGU, BAINA EZ HORI BAKARRIK), GIZARTE-EHUNA (ZER SARE, ZER KOLEKTIBO AKTIBO, ZER NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZTA EKIMEN KOOPERATIBO, TOKIKO MERKATUAK, KONTSUMO TALDEAK), PROBLEMATIKA GARRANTZITSUAK...• GURE IKASTETXEA: IKASTETXE-MOTA, KLAUSTROA, IKASLEAK, ETA ABAR DESKRIBATZEA. HEZKUNTZA PROIEKTUA, BALIOAK, ZER HEZKUNTZA-MOTAREN ALDE GAUDE. ZER POTENZIALTASUN DUGU GURE IKASTETXEAN GENERO-IKUSPEGIDUN ELIKADURA BURUJABETZAREKIN LOTUTAKO PROIEKTUAK TXERTATZEKO. HEZKUNTZA-JARDUERA BALDINTZATZEN DUTEN ZER ARAZO HAUTEMAN DITUGU (IKASLEEN MOTIBAZIOA, IRAKASLEEN ISOLAMENDUA, DIZIPLINA-IKUSPEGIAK, JOERA/IKUSPEGI KONTSERBADOREAK, IRAKASKUNTZA-IKASKETA PROZESU EZ OSO KRITIKOAK, PROIEKTU INKLUSIBO EZA -HEZKIDETZA EDO ANIZTASUN ARLOETAN-). |

| | | |
|--|--|--|
| <p>GAIAREN AUKERAKETA</p> | <p>JUSTIFIKAZIOA</p> | <ul style="list-style-type: none"> • PROBLEMATIKA JAKIN HORI ZERGATIK AUKERATU DEN ARGUDIATZEA, ZER HARREMAN DUEN HORREK ELIKADURAREN ARLOAREKIN ETA ZERGATIK GAI HORI LANTZEAK GURE IKASLEEK JASOTZEN DUTEN HEZKUNTZAREN ETA LANBIDE-HEZIKETAREN KALITATEA HOBETUKO DUEN. • MODU ESTRATEGIKOAN ETA EPE LUZERA PENTSATZEA, BERRIKUNTZA PROIEKTUEI EGONKORTASUNA EMATEKO HELBURUZ ETA PIXKANAKA IKASTETXEAREN BIZITZAN HORIEK GERO ETA ESPAZIO HANDIAGOA HAR DEZATEN, IKASTETXE BERRITZAILERA BILAKATU ARTE. |
| <p>ESPERO DEN ALDAKETA ZEHAZTEA</p> | <p>HELBURUA</p> | <ul style="list-style-type: none"> • ZERTAN DATZA PROIEKTUA ETA NOLA TXERTATZEN DA GIZARTEA ERALDATZEKO HEZKUNTZAREN ESPARRUAN. HAU DA, NOLA APLIKATZEN DIRA ELIKADURA BURUJABETZAREN, GENERO-IKUSPEGIAREN, JASANGARRITASUNAREN ETA PEDAGOGIA KRITIKOEN IKUSPEGIAK. GURE HEZKUNTZA-BERRIKUNTZAKO PROIEKTUAN ZEHAZTEN DEN ESKU-HARTZEAREN MUINA -ESPERO DEN ALDAKETA- AHALIK ETA MODU ZEHATZENEAN ADIERAZTEA. |
| <p>CURRICULUMA</p> | <p>INPLIKATUTAKO MODULUAK. CURRICULUM- EDUKIAK KONPETENTZIAK</p> | <ul style="list-style-type: none"> • ZEINTZUK IZANGO DIRA PROIEKTUAN INPLIKATUTAKO MODULUAK, ZER CURRICULUM-EDUKI LANDUKO DUGUN, NOLA LOTZEN DIREN ELIKADURAREKIN, NOLA LOTZEN DITUGUN HORIEK GUZTIAK ETA PROIEKTUA EZARTZEAN ZER KONPETENTZIA INDARTUKO DIREN. |
| <p>ALDERDI METODOLOGIKOAK</p> | <p>PROIEKTUAREN GARAPENA METODOLOGIA AKTIBOAK ETA PARTAIDETZAKOAK TXERTATZEA</p> | <ul style="list-style-type: none"> • PROIEKTUA ESPERO DUGUNAREN ARABERA GARATZEKO APLIKATUKO DUGUN METODOLOGIA DESKRIBATZEA (NORTZUK ARDURATZEN DIRA HURA KOORDINATZEAZ, KOORDINAZIO-, JARRAIPEN-ETA EBALUAZIO-BILERAK, ZER BALIABIDE ETAYEDO LAGUNTZA BEHAR DIREN...). • NOLA INPLIKATZEN DIRA IKASLEAK PROZESU OSOAN ETA ZER METODOLOGIA ERABILIKO DUGU PARTE HARTZE HORI ERAGINKORRA, GARRANTZITSUA ETA AHALDUNTZAILEA IZAN DADIN. |
| <p>ENPRESAK</p> | <p>MAPATZEA IDENTIFIKAZIOA</p> | <ul style="list-style-type: none"> • ELIKADURA BURUJABETZAREN ARLOKO HEZKUNTZA-BERRIKUNTZAKO PROIEKTUEN ALDERDI GARRANTZITSU BAT DA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOKO ZER ENPRESEKIN IZAN DEZAKEGUN HARREMANA IDENTIFIKATZEA (PRAKTIKAK, BISITAK, LEKUKOTZAK, ESPERIENTZIAK TRUKATZEA, LANKIDETZA-AKORDIOAK...). INTERESGARRIA IZAN DAITEKE LURRALDEKO EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOKO ENPRESEN MAPA EDUKITZEA (KOOPERATIBAK, ETEAK, NEKAZARITZA EDO ABELTZAINZA USTIATEGI TXIKIAK, TOKIKO DENDAK...). ETA MAPATZE HORREN BARRUAN, GARATZEN ARI GAREN PROIEKTUAREKIN LANKIDETZAREN BAT EZARTZEKO INTERESA IZAN DEZAKETEN HORIEK IDENTIFIKATZEA. |

EKINTZAK

JARDUERAK ETA BALIABIDEAK

- PROIEKTUA GAUZATZEN DUTEN JARDUERA NAGUSIAK DESKRIBATZEN DITUGU HEMEN, ESPERO DUGUN ALDAKETA HURA LORTZE ALDERA HORIEK DUTEN IZAERA ESTRATEGIKOA AZPIMARRATUZ. EZ DA BEHARREZKO JARDUERA BAKOITZA ZEHATZ-MEHATZ DESKRIBATzea, BAIZIK ETA IKASLEEN GAITASUNAK (ETA KONPETENTZIAK) HANDITZEN LAGUNDUKO DIGUTEN HORIEN BILTzea. HALA, IKERKETA, LANKIDETZA, IKASKETA-ZERBITZUA, EKINTZAILETZA EDO ANTOLAKUNTZA JARDUERAK -HAINBAT SUBJEKTU ETA ERAGILEREN ARTEAN- IZAN DAITEZKE, BESTEAK BESTE.
- JARDUEREN ETA IKASLEEN ARTEAN SINERGIAK BILATzea, ARLO PERTSONAL ETA POLITIKOAREN ARTEKO LOTURA EZARTZEN SAIATUZ. HORRELA IKASLEAK BEREN MOTIBAZIOEN BITARTEZ ERAKARRIKO DITUGU.

EBALUAZIOA

IKASITAKOAREN SISTEMATIZAZIOA

- KASU HONETAN, ASMOA EBALUAZIO IRIZPIDE BATZUK ZEHATzea DA. HORIETAKO BATZUK KUANTITATIBOAK IZAN DAITEZKE BAINA AHALEGINDU BEHAR DUGU IRIZPIDE KUALITATIBOAK IDENTIFIKATZEN, HORIEK LAGUNDUKO BAITIGUTE ELIKADURA BURUJABETZAREN ARLOKO HEZKUNTZA BERRIKUNTZAKO GURE PROIEKTUAREN ERAGINA BALORATZEN.
- GARRANTZITSUA DA ERAGILE GUZTIEN PARTE-HARTZEAREKIN ESPERIENTZIATIK SORTUTAKO IKASPENAK IDENTIFIKATzea ETA SISTEMATIZATzea. BAI AURRERAPAUso HANDIAK EKARRI DITUZTEN HORIEK, BAI SORTUTAKO ARAZOEKIN ETA HORIEK KONPONTZEKO GARATU DITUGUN MEKANISMOEKIN LOTUTAKO HORIEK.
- URRATS HAU PROIEKTUAREN HURRENGO FASEAREN ABIAPUNTUA IZAN DAITEKE, ULERTUTA ABIAPUNTUA ETA AMAIERA DUTEN ESTRATEGIAK BAINO GEHIAGO, EPE ERTAIN-LUZEKO PROZESUAK ABIARAZTEN ARI GARELA.
- AZTERTU KANPOKO EBALUAZIO BAT INTERESGARRIA IZAN DAITEKEEN, IKASPENAK ETA IKASTETXE BERRITZAILE GISA INDAR ZAITZAKETEN BALIOAK DINAMIZATZE ETA JASOTZE ALDERA.

Bibliografía

Barraza Macías, Arturo (2013). ¿Cómo elaborar proyectos de innovación educativa? Durango (Mexico), Universidad Pedagógica de Durango. Hemen: <https://docplayer.es/2636273-Como-elaborar-proyectos-de-innovacion-educativa.html>

Martin, Antonio (1992). Ideas prácticas para innovadores críticos. Sevilla, Díada Editoras.

Esper onak

ALIMENTACIÓN sarea honako hauen lanari esker mantentzen da: irakasleak, zuzendaritza-taldeak, ekonomia eraldatzaileetako erakundeak, gizarte-erakundeak eta hezkuntza-komunitatea, oro har. Horiei guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu elikadura-sistema osasungarriago, bidezkoago eta iraunkorragoa sortzeko egiten duten lanagatik.

ALIMENTACIÓN Bidezko Elikaduraren eta Hegoaren proposamen batetik sortu zen, elikadura burujabetzaren, jasangarritasunaren eta feminismoaren printzipioetan oinarritutako elikadura-eredu bat sustatzeko helburuz. Horretan, ikastetxea elikadura onarekin, lurraldearekin eta bizitzaren zaintzarekin konprometitutako eraldaketa-eragile bilakatzen da. Hori dela eta, gure erakundeak irakasleak eta ikasleak laguntzen dituzte, ezagutzak partekatzeko eremuak sustatuz eta hezkuntza edukien eguneraketa eta egokitzea erraztuz, gure elikadura-ereduak eragindako gizarte, ekonomia eta ingurumen ondorioen aurrean kontzientzia kritikoa sortzeko eta hezkuntza komunitatea mobilizatzeko.

**Eskaneatu QR kode hau estekak
dituen bertsio digitalean sartzeko:**



<https://redalimentacion.org/>



<https://es-es.facebook.com/Alimentacion/>



Ezagutu itzazu Lanbide Heziketarako baliabide guztiak hemen:
<https://recursosfp.redalimentacion.org/eu/home-euskara/>



ALIMENTACIÓN

ELIKADURA-JASANGARRITASUNAREN ALDEKO HEZKUNTZA-SAREA

REDALIMENTACION.ORG